

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 17a / 585. zenbakia

Mendi Astea

Astelehenetik egubakoitzera
hitzaldiak izango dira
Monterronen
Besaide Mendi Elkarteak
antolatuta

ORAIN ETA HEMEN: LEHEN JAUNARTZEA/6 • KIROLA: ZALDIBAR, FINAL-LAURDENETAN/11



arrasate musikal



Nafarroa etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 06 83 - 943 77 05 40

- Instrumentuak
- Taldeak
- Hezkuntza berezia
- Musika
- ordenadore bidez
- Baleta

4 urtetik aurrera.
Helduendako eskolak.

Matrikulazio epea zabalik:

Maiatzaren 20etik ekainaren 21 arte.

Arratsaldeko 5 etatik-8etara.



KALEINKESTA/ Baserriko produktuak erosteko ohiturarik badauketzu? Ze etorkizun daukie?



MARI TERE ELORZA
Etxekoandrie



JON ORMAZABAL
Langillie



MARIA LUISA AGIRRE
Etxekoandrie



MANOLO SÁNCHEZ
Langillie



ALFONSO PRADOS
Langillie



LOURDES ARGIÑANO
Langillie

Baserriko zeozer erosten dot. Hala eta be, ez dauket hain argi baserriko produktuek kalitate hobie daukienik. Bestela, baserrixen etorkizune ez dot horren argi ikusten.

Ahal dotenien baserriko produktuek erosten ditudu, baiñe gehixenetan amak egiten ditudu erosketak. Kalidade hobie daukie eta hamen egindakuek die. Etorkizun gatxe daukie.


Ez dauket baserriko produktuek erosteko ohiturarik. Dendetakuek erosten ohituta nago eta horrekin ondo konponketan naz. Eta baserriarren egoerie hobera doieela uste dot.

Bai, baserriko produktuek erosteko ohiturie dauket, gehixenbat, daukien kalitateagaittik, zaporiagaittik. Kristoren aldie daukie. Baserriarren etorkizune gatxe ikusten dot.

Egunaren arabera... Batzuetan bai, baiñe askotan ez. Egixe esan, erosketak egiten doten lekuetan ez die holako produktuek errex topetan. Bestela, kalitatezko produktuek die.

Ohiturie badauket, baiñe ez dot beti holakorik erosten, ez egunero, behintzet. Baserriko produktuek kalidade hobie daukiela uste dot. Baserrixen aldeko kontzientzia haunditu egin da.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PLATAFORMA, EGOERA KASKARREAN Santa Barbara azpialdeko U itxurako plataforma oso egoera kaskarrean dago. Patintzeko oso aukera gutxi daude herrian, eta Santa Barbara azpiko plataforma, dagoen aukera bakarrenetarikoa, aspalditik dago izorrratuta. Duela hilabete batzuk hesiz inguratu zuten, konpontzeko asmatan, baina oraindik ez dute konpondu. Ea egiten duten!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

ORAIN ETA HEMEN /7

ZAHARRAK /17

Botikak birziklatzea

Erabilitako botika hondarrak batzeko edukiontzi bereziak ipini dituzte Arrasateko botiketean.

Gerrajerako erlojua

Cerrajerako erloju zaharra konponduko dute, duen esanahi bereziarengatik, San Juanetarako.

Karta jokoa Musakolan

Joan den astean jokatu zituzten Musakolako zaharren elkarte-ko tute, mus eta briska finalak.

ASTEKO DATUA

8

EMAKUMERI EMAN DIETE URREZKO ASTOKILOA

Musakolako jaietan urtero-urtero Kataiden erretiratuei ematen dieten bazkarian egiten duten lana eskertzeko, Musakolakoek Urrezko Astokilo bana eman diete zortzi emakumeri.

BESTE EKESANA

Arrasatek izugarriko garrantzia zuen. Alde batetik, lantegiak, olak, batez ere, eta lantegi txiki (sute-giak) piloa zegoen. Hor egiten zituzten ezpatak. Famatuak ziren hemengo ezpatak. Kontuan hartu behar dugu hemengo altzairua Europako onena moduan onartuta zegoela. Arrasateko altzairua oso garrantzitsua zen. Garai hartako (XVI. mendeko) harremanak ikustea besterik ez dago. Hona etortzen ziren flandiarrek, ingelesak, frantsesak...material horren bila. Hemengo altzairua oso ona ateratzen zelako, bereziki, Udaltxeko altzairua".

JOSE ANTONIO AZPIAZU
Arrasate Irratia/02-05-15

HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



Eztabaidarako lekurik ez

Apirilaren 14an, Zornotzako herritarrek, propaganda medio eskasekin eta agintari zein ESB bezalako enpresa handien boikot aktiboarekin, ezezko borobila eman zioten eraiki gura duten zentral termikoari.

Orain, zer gehiago egin beharko du Zornotzako herriak bere nahia errespetatua izan dadin? Eusko Jaurlaritzak eta aurretik EAJK, zentral termikoa dela eta, ez dute aldatuko iritzia. Proiektu estrategikoak direla eta, kaltetu eta herritarren hitza ez da aintzakotzat hartzen. Hor dago koska, *estrategia* hori da eztabaidatu beharrekoa. Botere ekonomikoak erabaki eta politikoez zintzoki onartzen duten *estrategia*.

Bien bitartean, *estrategia* horren adibide zentzugabekotarikoa bat aurrerapausoka dugu, Anoeta-Urnieta zatiko AHTren obra proiektua egiteko lizitazioa publikatu

baitu Fomentok egunotan. Gauzak honela, urtebeteko epea jartzen dute obrak hasteko.

AHTren kasuan eman den eztabaida hutsaren hurrena denik inork gutxi ezeztatuko du.

Zein instituzioek errezibitu du herritarren babesa horrelako estrategia garatzeko? Noiz izan da eztabaida publikoa puntu estrategiko horien inguruan? Argi da denon ondarea dena enpresa batzuen esku gelditzen dela, eta eskatzen digute isilik egotea.

Beraz, mobiliziorako deia egitea nahitaezkoa ikusten dugu AHTren aurkako asanbladatik, horretarako beta Durangon, maiatzaren 25ean egingo den manifestapena delarik; edo Arrasaten, ekainak lein Garagartzatik Untzillaraino -bertan bazkalduz- egingo dugun mendi martxan edo uztailaren hasierarako Y-aren trazatutik zehar antolatzen ari garen bizikleta martxa, edo...

"Proiektu estrategikoak direla eta, herritarrek ez dira aintzat hartzen. Estrategia da eztabaidatzekoa"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 17**
Español. Araba etorb, 17. 943 79 18 65
- ZAPATUA, 18**
Azkoaga. Ferrerías, 1. 943 79 15 15
- DOMEKA, 19**
Azkoaga. Iturriotz. 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 20**
Corcuera. M.Aranbarri, 1. 943 79 22 26
- MARTITZENA, 21**
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 22**
Amezua. Santamaina 32. 943 79 09 74
- EGUENA, 23**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

MODA DESFILEA
Gaur, 18:00etan, Amaia Udal Antzokian, Arizmendi Ikastolako lehenengo mailako Batxilergokoek moda desfilea egingo dute, datorren urteko ikasketa-bidaierako dirua lortzeko. Sarrera lau euro izango da.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, maiatzaren 23an, 21:30ean, Amaia Udal Antzokian, *Florcita del parque* film laburra eta *Miradas cruzadas* dokumentala emango dituzte.

PERKUSIO IKASTAROA
Arabiako Erritmoen hastapen lantegia antolatu dute. Maiatzaren 20an hasi eta ekainaren 17ra arte iraungo du. Bost egun izango dira, 18:00etatik 20:30era. Eta izena emateko, 943 79 80 25 telefonora deitu. 21 euro ordaindu behar da.

BESAIDKO EKITALDIK
Besaide Mendizale Elkartearen Mendi Astearen barruan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte elkartekoei. Horien artean, Monterronen, Jose Ramon Agirreren Mongoliako argazkien erakusketa jarri dute. Horrez gain, maiatzaren 21ean, martitzenean, *Pekindik Gipuzkoara bizikletan* izenburuko irudi proiektzioa egingo dute.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltsa zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Xiringen salmentak behera egin zuen

Herriko farmazietan, 1992an, 80ko hamarkadan baino askoz xiringa gutxiago saldu zituzten. Heroina kontsumitzaileen kopurua jaitsi zelakoan zeuden osasun arduradunak. Izan ere, 80ko hamarkadan, astero, hiesaren aurkako 800 kit banatzen zituzten; eta 92an, berriz, 70 bat.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lekaixua"

Irrintzia (pertsonek bakarrik). *Lekaixua eñ, lakaixua bota.*
-*Lekaixoka jatxi giñan San Marzialdik.*
-*Aber zeñnek itten daben lekaixo luziaua.*



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



"Nik toreatzaile izan gura dut"

Carlos Otadui, toreatzaile izan gura duen gazte arrasatearra, ezagutzeko aukera izan dugu. 18 urte ditu, eta domeketan Donostiako zezen-plazara joaten da trebatzera. Zaletasun hori nondik datorkion eta bere ametsa zein den kontatu digu.

Horrez gain, Jose Antonio Azpiazu historialari eta antropologoa izan da gurean. *Picas Vascas en Flandes* liburua idatzi du oñatiarrak, Arrasaterekin lotura handia duena. Zapatuan eta domekan entzun dezakezue.

Etxebizitzen gaineko eztabaida

Etxebizitzen gaineko mahai-ingurua izango da astelehenean, 10:00etatik aurrera. Azti-kerrek Arrasateko etxebizitzetan gainean egin berri duen ikerketa izango da hizpide. Besteak beste, Xabier Zubizarreta alkatea, etxe agentzietako ordezkariak eta Denontzat taldeko kide bat izango dira gurean. Martitzenean, bestalde, Illazki Albizurekin izango gara. Illazkik Alzheimer gaitasuna dutenei laguntza ematen die Arrasaten.

HAUGIROA!

ASTEKO MINIMA Astelehena, 12	7°C
ASTEKO MAXIMA Eguaztena, 14	25°C
ASTEKO EURIA (Bataz beste. L/m ²)	10 L

	Max.	Min.	Euria
Eguena, 8	13 °C	10 °C	37 l/m ²
Egubakoitza, 9	12 °C	12 °C	26,8 l/m ²
Zapatua, 10	12 °C	11 °C	1,1 l/m ²
Domeka, 11	15 °C	10 °C	5,5 l/m ²
Astelehena, 12	24 °C	7 °C	- l/m ²
Martitzena, 13	24 °C	9 °C	0,5 l/m ²
Eguaztena, 14	25 °C	7 °C	- l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**
21:00 MIR
- MARTITZENA**
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen
- EGUENA**
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Gailurretik/Mikelenea
- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Fagor Arrasate, Gipuzkoako onena

Joan den egubakoitzean, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak sariak banatu zituen, eta Fagor Arrasatek Gipuzkoako Enpresa Esportatzailearik Onenaren saria jaso zuen.

Sari horrekin, Arrasateko enpresak azken urteotan nazioartean saltzeko egin duen ahalegina saritu nahi izan zuen Gipuzkoako Merkataritza Ganberak. Luis Untzueta Fagor Arrasateko zuzendari nagusiak Arrasate Irratian azpimarratu zuen azken urte hau gogorra izan dela, baina gaineratu zuen azken urteotako ahaleginari eutsi, eta gero eta gehiago saltzen ahaleginduko direla.

Kike Amunarriz Arrasaten

Arrasateko Institutuaren 25. urteurreneko ekitaldiekin amaitzeko, Kike Amunarriz soziologoak berbaldia egin zuen martitzen arratsaldean Monterronen.

Berbaldiaren izenburua *Eske hau superguaya da: XXI. mendeko gazte hizkera hiritarra* izan zen, eta izenburu horrekin argi dago soziologo ezagunak gaur egungo gazteen hizkeraren inguruan egin zuela berba. Berbaldi horrekin amaitu dira dagoeneko Arrasate-Aretxabaleta Institutuaren 25. urteurreneko ekitaldiak.

Emakumea hilik Aramaio errekan

Joan den egubakoitzean, 40 urteko emakumea hilik agertu zen Aramaio errekan. Emakumea Aita Mennin zegoen ospitaleratua, baina aurreko astelehenetik (hilaren 6tik) ez zuten haren berri; badirudi ihes eginda zegoela.

Gorpua arratsaldeko hiru eta erdietan azaldu zen, Gesalibar auzoko Txirrita ostatuaren parean. Bake epailea arratsaldeko-seietan iritsi zen Bilbotik, auzitegiko medikua-ekin batera. Hilotza arratsaldeko sei eta erdietan altxatu zuten, eta Donostiako Institutu Anatomikora eraman zuten.



Baserritarren zaindariaren omenez

Eguaztenean, San Isidro jaietako azken egunean, Zigorrolako baserritarrek izan ziren protagonistak. Goizeko hamaitketan Meza Nagusia izan zen San Isidro elizan. Santua kanpora atera eta prozesioa ere egin zuten. Eta horren ondoren, bazkaria egin zuten 29 lagunek Kataiden.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Baserritik bizi

Duela gutxi jakin dugu Garagartza bidean dagoen *Tellerixakue* baserria bota egin dutela, haren lekuan poligono industrial bat egin gura dutelako. *Tellerixakue* baserriko Pakok berrogeita bost urte eman ditu, astero-astero, Azoka plazan ortuko jakiak saltzen. Azkenaldian, ordea, saltzeari utzi dio, gelditu zaien lurzorua

ganorazko ortua jartzeko txikiegia delako.

Behin aspaldiko *Tellerixakue* baserria bota ondoren, oso gutxi dira herrian baserritik bizi diren sendi edo lagunak. Muxibarkoak ere hor daude, ortutik baino ardietatik bizi baitira, baina Muxibarkoak gutxieneak izango dira.


Egun daramagun bizimoduak baserritik baino gehia-

go baserri lanetik alden du gaitu. Astelehenetik egubakoitzera zortzi ordu -edo gutxiago- lan egin gura ditugu. Baserritik bizi izateak beste konpromiso mota bat eskatzen du.

Bestalde, baserriko produktuek merkatuan lehiatzeko zailtasun handiak dituzte eta guk erosketak egiteko orduan ez ditugu aintzat hartzen. Horrez gain, oso laguntza gutxi dituzte.

Azken baten, desagertu egingo dira guztion erruz.

ASTEKO IRUDIA



XABIER URZELAI

'TELLERIXAKUE' BASERRIA BOTA DUTE, BASERRITIK BIZI ZEN AZKENETARIKO BAT

Garagartza bidean dagoen *Tellerixakue* baserria bota egin dute. Paradoxikoa bada ere, baserri hori antzina fabrika ere izan zen. Kontua da *Tellerixakue* baserriaren lurzoruan poligono industrial bat jarri behar dutela, eta, horren ondorioz, baserri zahar hori bota behar izan dute. Dena dela, baserriko jabeak aspal-

ditik jakinean zeuden eta dagoeneko beste baserri bat eraiki dute, zaharra baino gorago. Hala ere, *Tellerixakue* baserriko Pakok, lanbide horretan berrogeita bost urte igaro ondoren, Azoka plazan saltzeari utzi dio dagoeneko. Gelditu zaion lurzoruan ez ei dauka ganorazko orturik jartzeko leku nahikoa. /I.B.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad **ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

GIZARTEA/ Lehenengo jaunartzeak

Lehenengo jaunartzeak ezkontza txiki bilakatzen ari dira gaur egun

UBANE MADERA

Maiatzarekin batera lehenengo jaunartzeak etorri ohi dira. Aspaldi-aspaldiko usadio erlijioso da hori, Jauna lehenengo aldiz hartzea edo sinesmenaren baieztapena erakusten duen jai. Baina urteek aurrera egin ahala, asko aldatu den ohitura ere bada.

Nerea González Rodríguez-ek eta Jon Mondragón Segundo Galindok lehenengo jaunartzea egin berri dute. Maiatzaren 5ean egin zuen Nereak, Mesedeetako eskolako parrokian, eta maiatzaren 12an Jonek, San Frantzisko elizan. Biak poz-pozik daude egun harekin, euren eguna izan da eta. Bizitza osorako oroitzapena gordeko dute. Hala diote, behintzat, euren gurasoek: Montsek, Nerearen amak, eta Begoñak eta Jesusek, Aitorren gurasoek. Baina horrekin batera, umeek lehenengo jaunartzea egiteak lan eta gastu ugari dakar gaur egungo gurasoendako. Askok uste baino burukomin handiagoak.

HIRU URTE LEHENAGO

Begoñak eta Jesusek kontatu diguten moduan, lehenengo jaunartzea egitera doazen umeak hiru urte lehenago hasten dira preparatze lanak egiteko. "Katekesiko hiru urte ematen dituzte, astean behin. San Frantziskon, adibidez, katekistak arduratzen dira eskolak emateaz, baina bestelako parrokia batzuetan gurasoek ematen ei dituzte, katekistak falta direlako". Eta Jesusek kontatu digu horrek gurasoendako esangura duela, umearen ordutegia (eta gurasoena, jakina) eskola horretara egokitu behar dela. Dena dela, Jonek gaineratu digu bera gustura ibili dela eskola horietan.

Hiru urte horietatik azkena jaunartzea bera prestatzen ematen ei dute: "Eta abendurako, guri, guraso, jakinarazten digute egun hori prestatzen has gaitzkeela, batzarrak, aitorten komunitarioak, entseguak eta bestelakoak egiten".

JANTZIA LEHENENGO

Jakina, horrek esan gura du jaunartzearen egunarekin ere pentsatzen hasi behar direla. Hau da, umearen jantzia, bazkaria, argazkiak... Gauza asko dira. Baita gastu handia ere. Montse urtarrelean hasi zen: "Alaba handi samarra da; hortaz, haren neurriko soinekoa topatu behar nuen. Gasteizeraino joan behar izan nintzen eta ezkontzeko jantziak saltzen dituen denda baten erosi nuen". Kontatu digunez, gaur egun, nesken jantziak oso garestiak dira, "300 euro balio izaten dute, baina nik zortea izan nuen



Nerea González eta Jon Mondragón, jaunartzeko argazkietan.



ARRASATE PRESS

Katekesiko eskolak hartzen dituzte umeek jaunartzea baino hiru urte lehenago

eta ezkontzeko jantzi txiki bat erosi nuenez, 168 euro gastatu nituen". Jakina, horrez gain, eraman beharreko osagarriak falta dira: "Zapatak, eskularruak

Jatetxea topatzea da gaur egun lanik gaitzena. Urtebete lehenago ere hartuta daude

(gehienek eramaten dituzte), ile apaindegia (makilatu ere makilatzen dituzte), argazkiak ere ateratzen dira. Nire kasuan, apirilaren hasieran egin nituen argaz-

Musika eta guzti izaten dute batzuek bazkarian. 30-40 lagun inguru elkartzen dira

kiak; hamabost egunera oroigarriak ematen dizute".

Begoñak eta Jesusek antzerako esperientzia bizi izan zuten. Jatetxea topatzea izan da euren-

dako egin beharreko gaitzena: "Gu abenduan bertan Arrasaten ibili ginen eta ordurako jendea itxaron-zerrendan zegoen. Azkenean, Aretxabaletan egin behar izan genuen". Jantziarekin, berriz, zorte handiagoa izan zuten. "Ezkontza bat genuen jaunartzearen ondoren, eta Jonek, marimel joan barik, kaleko jantziekin joatea erabaki zuen. Dena dela, hark gura zuen moduan joaten uzteko asmoa genuen".

HIRU MILA EURO (MILIOI ERDI PEZETA)

Baina umearen jantzi dotoreaz gain, senideak ere dotore-dotore joaten dira ospakizunera, eta horrek beste gastu handi bat dakar. Baina gasturik handiena bazkariak sortzen du. Montsek kontatu digu eurak 40 inguru izan zirela, senideak bakarrik: "Musika eta guzti izan genuen eta gure kasuan, bazkaria ez nuen nik ordaindu, baina badakit menuak 42 eurotik hasi eta, gutxi gorabehera, 72rainokoak izaten direla".

Begoñarendako eta Jesusendako ere hori izan zen gasturik handiena: "Gu 44 izan ginen, senideak bakarrik". Azkenean, biek 2.500 eurotik 3.000 eurora arteko gastua egin dute.

Baina horrekin batera, nabarmendu gura izan dute umearen dako oso egun garrantzitsua dela, "umearen eguna", hain zuzen ere. Hortaz, gastuak gastu eta burukominak burukomin, oso-oso oroimen polita geratzen zaiela.

Ohiturak aldatzeko gertu

Hori da parekotasunik nabarmenena: jaunartzeak ezkontza txiki izaten hasi dira. Gastu aldetik eta umeek izaten duten prestakuntza aldetik. Argi ikusten da hori egunean bertan, eta Nerearen eta Jonen gurasoek bat egin dute horrekin.

Datuak zenbakitan

Jantzia: 300 euro inguru (batzuetan osagarriak aparte doaz)

Argazkiak: estudio eta oroigarri eta guzti 150-300 euroren artean. Gehienetan bideo eta guzti eramaten dute gaur egun.

Horri, umearen ile apaindegia, senideen jantziak eta, oro har, bazkaria gehitu behar zaizkio. Menu bakoitza: gutxienez, 42 euro. Bazkarian, 30-40 lagun.

Guztira: 2.500-3.000 euro.

Eta umeak jasotzen dituen opari handiak ere aipatu beharko liriateke zerrenda horretan. Gaur egun, batzuek bidaiak ere oparitzen ei dizkiete.

Hori dela eta, parrokokoren batzuk saiatu izan dira ospakizun xumeagoak ezartzen, baina jeneralean ez dute lortu, gurasoek ez zutelako hori gura. Montsek bat egin du horrekin: "Nik horrelakoetan arrazoia ematen diot parrokoari. Uste dut hain ospakizun handia egiteko errua denok dugula: gurasoek, telebistak erakusten duenak...". Montse ados egongo litzateke beste ospakizun mota bat egingo balitz. Eta Begoñak eta Jesusek ere iritzi bera dute: "Horrela planteatuz gero, niri hobeto irudituko litzaidake".

Botikak birziklatzeko aukera ere badago Arrasateko farmazietan

UBANE MADERA

Botika hondarrak zakarrontzira bota beharrean, farmazietara eramateko aukera dago orain. Arrasateko Udalak ere bat egin gura du ekimen horrekin eta herritarrek parte hartzea gonbidatzen ditu. Arrasateko ia botika guztietan daude sendagaiendako edukiontzia.

Orain dela hiruzpalau aste eka- rri zituzten Arrasatera senda- gaiak batzeko edukiontzia. Ma- lako farmazian izan ezik, gaine- rako guztietan daude ipinita; edozelan ere, Maalako botikariak adierazi digun moduan, eurek eskatuta dute edukiontzia, aspal- ditik, gainera.

Botikariek kontatu digute- nez, jendeak dezente erabiltzen ditu edukiontzia; leku batzue- tan, uste baino gehiago; botika- riak ere pozik daude ekimenare- kin. Dena dela, gaineratu digute orain arte edukiontzirik egon barik ere batu izan dituztela boti- ka hondarrak farmazietan.

ZER ERAMAN DAITEKEEN

Botiken hondakinak behar ez direnean, atzera farmaziara era- mateko kanpaina da hauxe. Ez da- eta komeni botikak zakarrontzi-



Iraungitako botikak ere eraman ahal dira edukiontzia horietara.

ra botatzea, kontrol barik botaz gero, ez diotelako mesederik egingo naturari. Iraungitako boti- kak euren ontzietan, botika-ontzi hutsak eta botiken hondarrak dituzten ontziak eraman daitez- ke edukiontzia horietara. Ez, ordea, termometroak, protesiak, orratzak, objektu zorrotzak...

HONDAKINAK DEUSEZTATU

Gero, farmazietan batutako boti- ken ontziak birziklatu egingo

dituzte eta botiken hondakinak deuseztatu egingo dituzte. SIGRE izeneko sistemak bermatuko du hori. Sektore Farmazeutikoko Ontziak Kudeatu eta Jasotzeko Sistema Integratua da SIGRE.

Osasunerako Mundu Era- kundeak gomendatutako ekime- na da hori. Eusko Jaurlaritzak abian ipini du Euskal Herrian, eta Arrasateko Udalak herritarrek birziklatze horretan parte har- tzea animatu gura ditu.

LABUR

Donostiako elizbarrutitik gaixoen erromesaldia izango da Lourdesera

Maiatzaren 25etik 26era Donostiako elizbarrutitik Lourdeserako gaixoen erromesaldia izango da. Hori dela eta, Arrasateko Osa- sun Pastoralak maiatzaren 25ean autobusa antolatuko du intere- sa dutenendako. 06:00etan irtengo dira Arrasatetik, maiatzaren 25ean bertan; itzulera, berriz, Lourdesko gaueko azken elizkizu- na bukatu eta gero izango da. Parte hartu gura duenak maiatza- ren 20a baino lehen eman beharko du izena bere parrokiari; bes- tela, honako telefonoetara deitu beharko du: 943 79 49 24 (M^a Car- men) eta 943 79 49 47 (Dionisio)

Herrian egin beharreko lan gehiago onartu ditu oraingo asteko Gobernu Batzordeak

Erguin auzoa berriro urbanizatzeko proiektua behin betiko onar- tu du Udalak. Lan horiek zatika egingo dituzte, aurrekontuaren arabera; hortaz, oraindik zehaztu barik dago noiz hasiko diren. Bestalde, Kalealdea eta Gernika Oinezkoen Zumardia lotzeko eska- lera eraikitzeko lanak adjudikatu ditu. Construlan enpresak egin- go ditu, 50 mila euro pasatxoren truke; uda ingururako bukatuko dituzte lanok. Horrez gain, Udalak Cerrajerako eraikinean ipini gura duen Industria Erakusketarako lokala garbitzea ere onartu du, bai eta ia 10.000 euroko inbertsioak egitea ere.

Oraingo hilabetean ospatuko du Ibai Artek elkarteko hamargarren urteurrena

Oraingo hilabetean beteko ditu Ibai Artek hamar urte. Eta urte- rren berezi hori ospatzeko, ekitaldiak egitea pentsatu dute. Edo- zelan ere, orain dela oso denbora gutxi berri dute Ibai Artek Zuendaritza batzordea; hori dela eta, kide berriek ez dute nahi- ko asti izan hamargarren urtemugako ekitaldiak antolatzeko. Hala eta guztiz ere, maiatzean, ekainean eta uztailan, hilero 600 euro zozkatuko dituzte herritarren artean. Eta hori ez da izango eki- menik handiena; izan ere, udazken alderako jairen bat antolatze- ko asmoarekin ari da Arrasateko merkataritza elkarteak.

San Andres Herri Eskola berritzeko proiektua eta aurrekontua onartuta

UBANE MADERA


San Andresko Herri Eskola berritzeko proiektuari onesp- na eman dio oraingo astean Gobernu Batzordeak. Ia 230 mila euroko aurrekontua onartu dute lanok egiteko. Udako oporraldian egingo dituzte lan guztiak; hortaz, hiru hilabeteko epea zehaztu dute.

Arrasateko eskola publikoetan ikasle aldaketa izango da laster. Hau da, orain arteko banaketa- rekin jarraitu beharrean, adina- ren arabera banatuko dituzte umeak herriko ikastetxe publi- koetan.

Horren arabera, San Andres Herri Eskolak edo Arrasate Herri Eskolak (Bedoñabe izeneko erai- kina) bitik bost urtera arteko umeak hartuko ditu. Eta horre- tarako, beharrezkoa da eskola hori behar berrietara egokitzeko lanak egitea.

JOLASTOKIA ETA SOLAIRUAK

Ia eskola osoan egingo dituzte berritze lanak. Adibidez, jolasto- kian, besteak beste, kulunkak egokituko dituzte eta jolastokiko zorua margo bereziekin margo- tuko dute. Era berean, jolastoki- tik eskolara sartzeko bidea ere



Bitik bost urtera arteko umeak hartuko ditu San Andresko Herri Eskolak.

berrituko dute.

Horrez gainera, eraikin oso- aren aurrealdea txukunduko dute, baita jolastoki estalia ere.

Solairuei dagokienez, behe- ko solairuan gela bat psikomo- trizitaterako egokituko dute. Lehenengo solairuan bi eta hiru urteko umeak hartuko dituztela- eta, gela nagusia ume txikie- nendako izango da eta atsed- en- gela izateko konponduko dute. Bigarren solairuan liburutegia

egongo da eta hirugarrenean, berriz, lau-pabost urteko ume- ak. Azken horretan ez dute alda- keta nabarmenik egingo, zorua berri dute, besterik ez.

Eta, era berean, eskaileretan eta pasabideetan ere egingo dituz- te konponketa lanak.

Ia 230 mila euroko aurrekon- tua onartu du Udalak lan guztiak egiteko. Udako oporraldian egin behar dituzte lanak; hortaz, hiru hilabete izango dituzte.



Cerrajerako ordularia konponduko dute

Cerrajerako antzinako erlojua konpontzea onartu du Gober- nu Batzordeak. Manuel Etxeandiak, Gasteizko udal erlojugi- le ohiak, egingo du lan hori, 590 euroren truke. Asmoa da San Juanetarako bukatuta egotea. Marga Garmendiak, gai horren gaineko Udaleko arduradunak adierazi digunez, "Industria Era- kusketa eraikin horretan ipiniko dugu, eta erakusketak irau- ten duen artean, han izango da erlojua. Arrasatearrendako oso elementu sinbolikoa da; garai hartan, Arrasateko bizmodua markatu zuen". Erlojuaren sirena ere konponduko dute.

ELKARRIZKETA

LISSETE ORELLANA/ETXE OKUPATZAILEEN MUGIMENDUKO KIDEA

“AEBetako armadak uranioko lehergailuak erabiltzen ditu”

UBANE MADERA


Puerto Ricora goaz oraingo honetan. Lissete Orellana Arrasaten ibili da eta hain gutxi ezagutzen dugun herrialde haren gainean berba egiteko aprobetxatu dugu. Besteak beste, *Ningún modelo a seguir* fantzineko egilea da.

Egin iezaguzu zure buruaren aurkezpen txo bat.

Hegoaldeko Guayama izeneko herri batekoa naiz, 44.000 bat biztanle bizi gara han. Herri industrialia da; gero eta etxebizitza gehiago egiten ari dira, gainera. Baita autobide eta saltokigune handiak ere. Lantegi mordoa dago.

Estatu Aske Elkartua da Puerto Rico. Horrek zer esan gura du?

Gure gobernu dugu, presidentea (Sila María Calderón, Partido Popular Democrático alderdikoa), gure bandera eta gure hizkuntza ofiziala (gaztelania). Baina dolarra da gure moneta eta armada ere estatubatuarra da. Ondorioz, base militarrek ditugu hemen. Horrekin dugu arazorik handiena. Adibidez, 60 urtetik hona Vieques uhartearen erdia okupatzen duen base bat dugu, itsas armadarena. Kontua da uharte hartan jendea bizi dela eta militarrek lehergailuekin eta bestelakoekin praktikak egiten dituztela. Uharteko bizilagunak hasieratik egon izan dira kontra. Duela bi urte, adibidez, gizonezko bat hil zuten lehergailu batekin. Gainera, uranioa erabiltzen dute, eta, ondorioz, itsasoko ura kutsatzen dute, animaliak hilda agertzen dira, eta kantzer kasu ugari



UBANE MADERA

sortu dira, bihotzekoak... Horren kontra, desobedientzia zibila bultzatzen ari gara. Ezkerreko zein eskumako alderdiak, herritarrrak... guztiak daude kontra; baita erlijio askotako kideak ere.

Zelan etorri zara hona?

Internet bidez Etxe Okupatzaileen Mugimenduko jendea ezagutu dut. Belgikan izan nintzen lehenengo, bidaiatzen eta

gizarte zentroak eta okupatzaileak ezagutzen. Handik Bartzelonara joan nintzen eta gero, Bilbora, Laudiora... Orain, Arrasatera etorri naiz, Eskuak Burura taldeko Josu ezagutzera.

Zer iruditu zaizu hau?

Gustatzen zait, kalean ikusten diren kartel eta mural mordoek erakusten dute hemen kaleko mugimendu handia dagoela.

Esplotazioaren gaineko txostena egin behar du Kanpanzar harrobiak

Kanpanzar harrobiak hiru hila-bete ditu Arrasateko Udalari esplotazioaren gaineko txosten bat aurkezteko. Hala erabaki du oraingo asteko Gobernu Batzordeak. Kontua da, aurtengo apirilean jasotako zenbait datuen arabera, harrobiak baimendutako esplotazio eremua gainditu egin duela. Hau da, legeak ezarritako mugak gainditu ditu Udaltzen magalean dagoen harrobiak. Hain zuzen ere, orain dela bederatzietan, harrobiari esplotazio baimena eman ziotenean ezarritako mugak %20 gaindituko dituzte, datuen arabera.

Hori dela eta, Gobernu Batzordeak hiru erabaki hartu ditu:

harrobiari espediente zabaltzea, harrobiaren erantzukizun administratiboak zehazteko. Gaur egungo harrobiaren egoera legeztatutako beharra. Ondorioz, Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Deklarazio berri bat egin behar du Kanpanzar harrobiak; eta, horretarako, hiru hilabeteren buruan beharrezko dokumentazio tekniko aurkeztu behar du harrobiaren arduradunek. Eta bukatzeko, esandako guztia bete artean, harrobiak ezin izango duela 1993. urtean ezarritako mugarik gainditu.

Era berean, harrobiaren arduradunei aditzera eman diete esandako guztia bete ezean, beste espe-

diente zigortzaile bat zabaldu ahal izango duela Udalak, baita harrobiaren jardura bertan behera uzteko agindua eman ere.

25 URTERAKO

Hain zuzen, 1993. urtean aurkeztu zuten Kanpanzar harrobia esplotatzeko proiektua, eta orduantxe eman zion Arrasateko Udalak baimena. Gero, harrobiaren Ingurumenaren Gaineko Deklarazioa egin zuten, eta horren arabera harrobiaren mugak zehaztu zituzten: 6.238.359 tona harri ateratzeko baimena, urtero 250.000 tona aterata, datozen 25 urteotarako lana izango luke Kanpanzar harrobiak.

LABUR

XVI. mendeko armagintzaren gaineko liburuan Arrasatek leku handia hartu du

Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak XVI. mendeko armagintzaren gaineko liburua plazaratu berri du. *Picas vascas en Flándes* da liburuaren izenburua eta Tartalo argitaletxeak argitaratu du. Garai hartan Deba ibarrean armen industriak izan zuten izugarriko garrantziaren berri ematen du liburuak. Eta hor, Arrasatek ezinbesteko lekua izan zuen. Jose Antonio Azpiazuk Arrasate Irratian kontatutakoaren arabera, “Carlos V.aren eta Felipe II.aren garaian, haien gudarostearen arma arinen %90 Deba ibarrean egiten zituzten. Eta arma horien piezarik garrantzitsuenak, giltza, Arrasateko Udaltzeko altzairuarekin egiten zuten, Erregeren aginduz. Izan ere, Arrasateko altzairua Europako onenetakoa zen orduan. Era berean, zelanbait garai hartako industriaren eraketak kooperatibismoarekin lotura zuzena zuela ere aipatu du Azpiazuk liburuan. Liburuak liburu dendetan dago salgai.

Hirigintza gaiak nagusi udalbatzarrak atzo egin zuten osoko bilkura berezian

Hileroko ohiko bilkurari itxaron barik, osoko bilkura berezia egin zuten atzo udalbatzarrak. Hiru gai zituzten zehaztuta eguneko zerrendan. Bi hirigintzakoak eta bat aurrekontuekin lotutakoa. Horrela, batetik, Legargainen etxebizitzak egiteko lursail bat saltzeko proposamena aztertu eta erabaki behar zuten. Bestetik, Cerrajeran inguruan bulegoendako eraikina egiteko lursaila erosteko aukera ere aztertu behar zuten zinegotziek. Aurrera eginez gero, babes ofizialeko etxebizitzak egin behar dituzten gunean, enpresa edo negozioek bulegoak ipintzeko aukera izango dute. Hain zuzen ere, Eskualdeko Ospitaletik gertu kokatuko litzateke eraikin hori. Bukatzeko, aurtengo aurrekontua betetzeko arauak aldatzeko proposamena ere aztertu zuten udalbatzarrak. Baita kreditu bat aldatzea ere. Hain justu ere, Bedoñabe eraikinean egin beharreko lanendako aurrekontu handiagoa behar zutelako.

Edozelan ere, albiste hau idazteko orduan, bilkura oraindik egin barik zegoen; hortaz, ez dugu jakiterik zinegotziek hartutako erabakiak zeintzuk izan diren.



Kolektoreko lanak luzerako izango dira

San Andres, Obenerreka eta Musakola inguruak zulatuta daude, herriko ur zikinak batzeko kolektorearen lanak direla-eta. Nafarroako Mariezcurrena enpresa ari da lanok egiten eta luzerako izango direla dirudi. Izan ere, orain artekoaz gain, San Isidro elizaren ondoan eta Munarren gainezkabideak egin behar dituzte (San Andresko Maiatzaren 1a plazan egiten ari diren modukoak). Lan handia da hori; hortaz, aurreikuspenen arabera, azarora arte lanean jardungo dutela uste dute. Edozelan ere, datorren astean, Udalak lanon jarraipena egingo du. /J.M.



HERRI BAZKARIAN, EURIA GOITIK BEHERA

Zigorrolakoak ez dira erraz kikiltzen, eta herri bazkaria jende asko joan zen, nahiz eta eguraldiak askorik lagundu ez zuen. Euria egin zuen, baina asko oso gustura egon ziren bazkarian. Beste askok ez zuten horren ondo pasatu; izan ere,

nahiz eta karpa azpian egon, euri tantak erortzen zitzaizkien. Dena dela, giro aparta egon zen, eta janaria ere goxoa ei zegoen. Ea datorren urtean eguraldiak laguntzen duen, eta horrela ez bada, aterpe egokiren bat topatu beharko da.




SOKATIRAN, GOGOR

Arratsaldeko seietatik aurrera San Isidroko Sokatira Sari Nagusia jokatu zen, eta Zigorrolakoek herri kiroletako modalitate horretan trebeak direla erakutsi zuten. Irabazleek, garaikurrez gain, bildots bat ere eskuratu zuten. Bigarren geratu zirendako urdaiazpikoa eta xanpain sorta izan zen. Hirugarren eta laugarrenendako ere sariak izan ziren.


MOTO HOTSA AURTEN ERE

Bazirudien zapatuan egindako eguraldiak Moto Kontzentrazioa zapuztu egingo zuela, eta egia esatearren, zapatu eguerdian ez zen moto askorik ikusi Musakola inguruan. Asteburuak aurrera egin zuen neurrian, ordea, eguraldiak hobera egin zuen, eta arratsalde aldera motozale asko hurreratu zen Arrasate aldera. Kontzentrazioa Musakolan izan zen, baina Arrasateko kaleetan ere hainbat moto ikusi ditugu asteburuan barrena.



UMEAK PROTAGONISTA

Egubakoitz goizean hainbat argazki ateratzeko asmoarekin abiatu ginen Zigorrola aldera, eta konturatu ginenerako, San Frantzisko Ikastolako umeekin egin genuen topó. Gaztetxoak ere protagonista izan dira Musakolako jaietan, eta horren erakusgai argazkian azaltzen diren neska-mutikoen danborrada. Patxik, traktore gainean, karroa eramateaz gain, danborrada gidatu ere egin zuen, eta neska-mutiko mordoa izan ziren Patxiri jarraika. San Juanetarako horrelako danbor jotzaileak behar dira.




SAN PANKRAZIO EGUNEAN GIRO BIKAINA

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina lagun asko animatu ziren San Pankrazio eguna ospatzera. Eguerdi partean, koadrila asko bazkaltzera joan ziren, eta arratsalderako Eskola Profesionaleko inguruetan giro polita zegoen. Tabernetan

lekua topatu ez zutenek, Iturripeko pilotalekuan aurkitu zuten babesa. Pilotalekuan, txosna egoteaz gain, ilunkeran kontzertuak ere izan ziren. Ikasketak alde batera uzteko egun aproposa, hortaz.

DANIELLA ETA TUDOR COTICA, ARRASATE BISITATZEN

Socrates proiektuari esker, Daniella eta Tudor Cotica amasemeak Arrasaten izan dira aste osoan. Comenius proiektua, Socrates proiektuaren barruan dagoena, eskolen arteko elkartrukean oinarritzen da, eta Arizmendi Ikastola buru-belarri ari da proiektu horretan. Sei egunez, errumaniar horiek Arrasateko bazterrak ikusten ibili dira, Arizmendiko lagunek lagunduta. Arizmendi Ikastola ikusteaz gain, ARRASATE PRESSen ere izan dira. Beste bat arte!



“ZABORRARI GABON, BIZITZA HOBEARI EGUNON”

Lelo horrekin, Udalako Ingurugiro Eskolak eta Debagoieneko Mankomunitateak kanpaina bat jarri zuten abian. Kanpaina horretan hainbat ekintza zeuden, eta horietako bat Mural Lehiaketa izan zen. Muralaren izenburua: *50 urte barru... zer?*. Hauek izan dira lehiaketa horren irabazleak:

lehenengo saria San Frantzisko Xabier Ikastolako 6. mailako Jaione Ezeolaza, Oihane Izagirre, Iker Ibarra eta Imanol Martinez-endako izan zen; eta bigarren saria, berriz, San Viator Txiki Ikastolako 6. B mailako Iban Torres, Antton Peña, Imanol Oman eta Xabi Iñurriak eskuratu zuten.

Kenci Arrasatek ezin izan zuen denboraldiko azken partidua irabazi

XABIER URZELAI

Arrasateko Saskibaloitza Taldeak, Kenci Arrasatek, 79-83 galdutako Nafarroako Erro eta Eugi taldearen kontra, eta hala, Iker Zubiriaren mutilek ezin izan dute denboraldia garaipen batekin amaitu. Ondo hasi zuten partidua, baina minutuek aurrera egin ahala, etxekoek behera egin zuten.

Arrasatearrek hamar puntuko aldea ere izan zuten, baina azkeneko partiduetan gertatu den moduan, partidu osoan bikain jokatu eta gero, azkeneko minutuetan kale egin zuten. Partidua amaitzeko hiru minutu falta zirenean, Erro eta Eugi taldeak partidua berdindu egin zuen, eta azken momentuan kanpotarrek lau puntuko aldea eskuratu, eta partidua irabazi egin zuten.

Arrasateko taldeak zailtasu-



ARTXBOA

Kenci Arrasate taldeak ez du gura bezain ondo amaitu denboraldia.

nak izan zituen igoera faserako sailkatzeko, baina helburu hori lortu zutenean, etxekoek behera egin zuten. Kenci Arrasateko jokalaria Jagoba Gamarraren esa-

netan, helburu konkretu bat ez izateak ez dio mesederik egin Arrasateko taldeari. Datorren urterako badirudi hainbat aldaketa izango direla taldean.

FOTOKIROLA



Javier Mentxaka eta Maria Jose Gil, mondragoetar azkarrenak

Joan den zapatuan, sekulako giroa egon zen Arrasateko eta Oñatiko kaleetan. Aurten ere parte hartze handia izan du Arrasate-Oñati lasterketak; izan ere, 164 lasterkari animatu ziren bi herriak banatzen dituzten hamaika kilometroak lasterka egitera, eta herriez gain, bide bazterretan ere jende mordoia izan zen korrikalariei animatzen.

Gizonezkoetan Aitor Uribealzo iurretarra izan zen azkarrena eta emakumezkoetan Iratxe Aranburu zarautzitarra iritsi zen lehena helmugara. Arrasatear azkarrena Javier Mentxaka izan zen eta emakumezkoetan Maria Jose Gil izan zen lehena; biek hala biek, nahiz eta beteranoak izan, argi erakutsi zuten sasoi-sasoian daudela. Sari banaketa Oñatiko plazan egin zuten. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iriztu Taberna - Bikain Akademia	0-1
Goma2 - Koka Junior Basati	5-5
Usotz Potroak - Bin Laden	----
Etixerat - AC Surcos	5-5

B MULTZOA

Azkena You Know - Irati STS	3-6
AT Celaya - Aurrera Bolie	3-3
I.K.P. - Rayo Aldeano	7-13
Chapime Dribling - Betrayer	6-4

PARTIDUAK

MAIATZAK 18, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: Goma2 - Azkena YK. Antolakuntza
12:00: Chap. Dribling - AC Surcos Antolaku
17:00: Etixerat - Rayo Aldeano Antolakuntz
18:00: KJ Basati - Irati STS Antolakuntza

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	12	7
2. Goma2	10	7
3. Etixerat	10	7
4. Koka Junior Basati	9	7
5. Bikain Akademia	6	7
6. Iriztu Taberna	4	7
7. Bin Laden	3	7
8. Usotz Potroak	0	7

B MULTZOA

	P	J
1. Irati STS	10	7
2. Rayo Aldeano	10	7
3. Azkena YK	10	7
4. Chapime Dribling	8	7
5. Betrayer	6	7
6. AT Celaya	6	7
7. Aurrera Bolie	3	7
8. I.K.P.	3	7

DAGOENKO FINAL LAURDENETAN

SORPRESA HANDIRIK EZ FINAL-LAUDENETARAKO

Bigarren fasea amaitu da, eta Zaldibarko Txapelketan zortzi talde baino ez dira geratzen. Txapelketaren nondik norakoak ikusita, ez da sorpresa handirik izan, nahiz eta Iriztu Tabernak lehenengo eta bigarren fasean maila polita erakutsi. Azkeneko asteetan ez dira fin ibili, eta azkenean fidantza ere galdutako dute, azkeneko partidura ez agertzea-gatik. Azken partiduan aipagarria da You Know hirugarren postura jaitsi izana, orain arte sailkapeneko lehen postuan izan da-eta.

EPAILEEK NEURRIA HARTU DIOTE TXAPELKETARI

Joan den astean jokatu zituzten partiduetan ez zen istilu handirik izan, nahiz eta eguraldi txarraz ez zuen epaileen lana erraztu. Badirudi, partiduek aurrera egin ahala, epaileek ere neurria hartu diotela txapelketari, hasierako epailetan antolakuntzakoak ez ziren-eta oso fin ibili. Epaileak, gauzak ondo edo gaizki egin, nolabaiteko nagusitasuna erakutsi behar du kantxan, eta hartzen dituen erabakiak argi eta garbi hartu. Hori, behintzat, ikasi dute. Edozelan ere, egitea baino errazagoa da esatea.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Ondarroako Aurrera
Erregionala. Zapatuan. 17:00. Atxabalpe.
Martutene - Mondragon
Ohorezko gaz. Zapatuan. 15:00. Donostia.
Donibane - Arrasate
2. mailako gaz. Zapatuan. 16:15. Pasai Antxo.
Arrasate - Hernani
Ohor. kadeteak. Domekan. 12:00. Atxabalpe.
Arrasate - Hernani
Ohor. Infantilak. Domekan. 10:00. Atxabalpe.

SASKIBALDIA

Kenci Arrasate - Indulita Nies
Junior neskek. Zapatuan. 10.00. Musakola.

Kenci Arrasate - Easo C

Kadete mutilak. Domekan. 11:30. Arrasate.

ESKUBALDIA

Donibane Majestic - Arrasate
Seniorrak. Domekan. 11.30. Donibane.
Urnietako - Arrasate
2. seniorrak. Zapatuan. 18:00. Urnietan.
Bergara - Arrasate
Gazteak. Zapatuan. 18:00. Bergara.

EMAITZAK

Senior: Kenci Arrasate - Erro eta Eugi. . . . 79-83
Gazt mut: Etxadi Easo - Kenci Arrasate. . . . 29-30

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ERRUGBIA

Arrasatek agur esan dio igoera faseari, Logroñon galdu eta gero

Arrasateko taldeak galdu egin zuen, neurri handi baten, epailearen erruagatik

XABIER URZELAI

Arrasateko errugbi taldeak agur esan dio aurtengo denboraldiari. Uste baino denboraldi hobeia izan da, Arrasatek igoera fasea jokatzeko aukera izan du-eta. Joan den asteburuan jokaturako partiduan mondragoetarrek 37-7 galdu zuten errioxarren kontra. Epailea izan zen protagonista.

Arrasateko errugbi taldeak joaneko partiduan Garagartzan erakutsitako irudia hobetzeko asmoz abiatu zen Logroño aldera, eta neurri handi baten, helburu hori bete egin zuen.

Arrasatearrek oso partidu ona jokatu zuten, partiduko azken minutuetara arte bai, behintzat. Patxiren mutilek gogor hasi zuten partidua, eta errioxarrak markagailuan aurreratu egin baziren ere, entsegu bateko alde baino ez zuten lortu. Partiduko azken zatira arte berdintasuna izan zen nagusi, baina azkeneko hamar minutuetan, Arrasateko taldeak markagailuari buelta emateko aurrera egin zuenean, epailea-



Aurtengo Garagardo Festa maiatzaren 31n izango da.

ren hainbat erabakik mondragoetarren ahalegin guztiak bertan behera utzi zituen. Erabaki horiek bikain aprobeztatu zituzten errioxarrek, eta hamar minutuan lau entsegu egin zituzten eta 37-7 irabazi zuten.

Arrasateko taldea hasieran uste zena baino hobeto ibili da aur-

ten, nahiz eta denboraldiari oso jokalaria gutxirekin egin dioten aurre. Datorren urterako aurtun izan ez diren hainbat jokalaria berriro bueltatzea espero du klubak, eta horrez gain, atzetik datozen gazteak taldean sartzea. Hortaz, datorren urtean talde osatuagoa izango dugu, seguru.

GIMNASIA

Arrasateko gimnastak bikain ibili ziren Uarkapen jokaturako finalean

Herriko bederatzi gimnasta izango dira bihar Zarautzen jokatu den B mailako finalean

X.U.

Joan den asteburuan, gimnasia erritmikoa izan zen herrian nagusi. Zapatuko finalean Arrasateko gimnastek emaitza onak lortu zituzten, eta domekan Musakolan egin zuten erakustaldia benetan arrakatsua izan zen. Bihar, berriz, B mailako finala jokatu da.

Arrasateko bederatzi gimnasta izango dira Zarautzen jokaturako den Eskola Arteko B mailako finalean. Alebin mailan hiru gimnasta hauek jokatu dute finala: Leire González-ek, Lorea Medinak eta Maite Sánchez-ek. Infantil mailan sei gimnasta izango dira Arrasate ordezkatzeko: Amaia Albes, Paula Heriz, Leire Hernández, Maite Otxandiano, Olatz Undagoitia eta Naiara Zabarte.



JULEN IRIONDO

Uarkapen jokaturako finalean gimnastek hainbat ariketa egin zituzten.

Joan den astean, A mailako finala jokatu zen Uarkapen, eta Arrasateko neskek ondo baino hobeto ibili ziren.

Alebin mailan, Arrasate lehena izan zen taldeka. Bakarkako modalitatean, lehenengo hiru postuak etxeokendako izan ziren: Jone Goikolea lehena, Ainhoa Apaolaza bigarrena, eta Leire Poyato hirugarrena. Infantil mailan, berriz, Marta Etxebarria hirugarrena izan zen.

Gazte mailan ere Arrasate izan zen lehena, taldeka. Bakaraka, A modalitatean, Miren Bragadok bigarren postua eskuratu zuen eta Maria Etxebarria hirugarrena izan zen. B modalitatean, berriz, Janire Bolinaga bigarrena izan zen eta Maialen Balentziaga hirugarrena.

Domekan, oster, ikusteko moduko erakustaldia egin zuten Arrasateko taldeko gimnastek, eta jende mardoa elkartu zen Musakolan. Erakustaldiaren amaieran sari banaketa egin zuten, eta norbait despistatu samar ibili zenez, oraindik sari bat dago banatzeko: 2.196 zenbakiduna, hain zuzen ere. Zenbaki hori daukanak maiatzaren 31 arte dauka saria jasotzeko astia.

XAKEA

Arrasateko Txapelketa Irekian Juan Carlos Mayo mondragoetarra nagusitu da

Gasteizen bizi den Juan Carlos Mayo arrasatearra nagusitu da San Andres Xake Taldeak antolatutako Txapelketa Irekian. Juan Carlosek bostetik lau puntu eskuratu irabazi du txapelketa.

Arrasate Hiria Xake Txapelketan, bestalde, Isidro Ruiz mondragoetarrak lehen postua eskuratu zuen Gerardo Fernández-en aurka. Momentuz, Arrasateko taldeko onena Josu Tornay da, lau garren postuan, eta liderra Cristobal Limeres gernikarra da.

BORROKA-ARTEAK

Uztailean, Wusu Kung Fu-ko Europako Txapelketa jokatu da Arrasaten

Ez da kirol ezaguna, baina uztailean kirol hori hobeto ezagutzeko aukera izango dugu; izan ere, Europako Wusu Kung Fu-ko Txapelketa Arrasaten jokatu da.

Baina ez dira Europako talde onenak bakarrik izango, mundu osoko ordezkariak ere izango dira-eta. Euskal Herria ere ordezkaturik egongo da; izan ere, kirol horretan Euskal Selektzioa ofizialki onartuta dago. Wusu Kung Fu Txinan eta Asian oso kirol ezaguna da eta Euskal Herrian 3.000 lagunek praktikatzeko dute.

Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

A Taldea			B Taldea		
jok.	punt.		jok.	punt.	
Oscar - Igor	3	6	Txori - Kaji	3	6
Gaizka - Iraultza	4	6	Eimon - Iker	3	5
Toribio - Pi	3	5	Ander - Mikel	3	4
Pin - Bode	3	4	Aritz - Aitor	3	4
Xabi - Egoitz	2	3	Ion - Igor	2	3
Gaizka - Ugutz	2	3	Pitu - Muxi	2	3
Xabi - Gufi	3	1	Oxel - Kuki	2	2

D Taldea			E Taldea		
jok.	punt.		jok.	punt.	
Bolu - Egoitz	3	6	Txopo - Frantxis	3	5
Txetxi - Albes	3	5	Jon - Andoni	4	5
Iraultza - Aitziber	2	4	Iker - Iker	2	4
Kepa - Goiko	2	4	Iñigo - Isturiz	2	4
Mikel - Unai	3	3	Ander - Ibai	2	3
Zubi - Pon	3	3	Tximu - Zaka	2	2
Xabier - Oscar	3	3	Lur - Skritx	1	1
Edu - Igor	3	3			



Hurrengo partidua:

Malatzak 18, zapatua (Musakolako kiroldegian)

- Gaizk - Iraultz vs Xabi - Egoitz 10:00 Frontoi txikia
- Xabi - Gufi vs Toribio - Pi 10:30 Frontoi txikia
- Oskar - Igor vs Gaizka - Ugutz 09:00 Frontoi handia
- Aritz - Aitor vs Pitu - Muxi 09:00 Frontoi txikia
- Txori - Kajita vs Oxel - Kuki 09:30 Frontoi handia
- Ander - Mikel vs Eimon - Iker 09:30 Frontoi txikia
- Xabier - Oscar vs Edu - Igor 10:00 Frontoi handia
- Bolu - Egoitz vs Kepa - Goiko 10:30 Frontoi handia
- Txetxi - Albes vs Zubi - Pon 11:00 Frontoi handia
- Mikel - Unai vs Iraultz - Aitzib 11:30 Frontoi handia
- Iker - Iker vs Lur - Skritx 12:00 Frontoi handia
- Txopo - Frantxis vs Iñigo - Istu 12:30 Frontoi handia
- Tximu - Zaka vs Ander - Ibai 13:00 Frontoi handia

MENDI ASTEA

Besaide Mendi Elkarateak Mendi Astea egingo du astelehenetik aurrera

Astelehenetik egubakoitzera berbaldiak egingo dituzte Monterronen eta asteburuan mendi irteerak antolatu dituzte

XABIER URZELAI

Aurten ere Besaide Mendi Elkarateak Mendi Aste erakar-garria antolatu du. Dagoeneko argazki erakusketa bat dago ikusgai Monterronen, eta datorren astelehenetik aurrera hainbat hitzaldi izango dira. Mendi irteerak astebururako utziko dituzte.

Mendi Astea maiatzaren 20an hasiko da. Edozelan ere, hilaren 13az geroztik Jose Ramon Agireren argazki erakusketa dago ikusgai Monterronen. Argazkiak maiatzaren 24ra arte egongo dira ikusgai, eta Mongolia hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen dute.

Mendi Asteko ekitaldiak, ostera, datorren astelehenean hasiko dira. Arratsaldeko zazpietatik aurrera, Jose Ramon Agirrek berak Mongoliaraino gerturatu-ko gaitu, ikus-entzunezko batekin. Argazki erakusketak bezala, asteleheneko ikus-entzunezkoak ere izenburu bera edukiko du: *Mongolia, Esteparen Taupadak*.

Martitzenean, berriz, Carlos Mañerok *Pekindik Gipuzkoara bizikletan* berbaldi interesgarria egingo du. Eguaztenean, bestalde, basamortura egingo dugu salto, basamortu hotz eta zurira, hain zuzen ere; izan ere, Goiuri Ibarlozak iraupeneko eskian Laponian egin zuen zeharkaldiaren gainean egingo du berba.

Eguenean, hilaren 23an, Felipe Uriartek Ameriketako *Hiru Haundiak* izango ditu berbagai. Eta berbaldiekin amaitzeko, egubakoitzean, Cecilia Buil emakumeek Karakorumen bizi duten egoeraren gainean mintzatuko da. Berbaldi horiek guztiak Monterron jauregian egingo dituzte, denak ere, ordu berean: arratsaldeko zazpietan, hain zuzen.

Berbaldiez gainera, mendi irteerak ere egingo dituzte aurtengo Mendi Astean. Horrela, zapatuan, mendi bizikleta irteera egingo dute; eta domekan, berriz, mendi ibilbidea izango da. Izena eman gura duenak hilaren 21a eta 22a izango ditu horretarako, Besaideko egoitzan.



ARRASATE PRESS

Datorren astean, hitzaldi interesgarriak izango dira Monterronen, arratsaldeko zazpietatik aurrea.



Ospatu gurekin
10.
urtebetetzea

Parte hartu

600 €

hileroko zozketan.
(Maiatzetik uztaileira)

Sari-txartelak Ibai-arte-ko komertzioan aurkituko dituzue.



Marrazki eta Pintura ikastarokoek erakusketa zabaldu dute Harresin

IKER BARANDIARAN

Monterrongo Marrazki eta Pintura ikastaroko ikasleek euren lanetako batzuk erakusgai jarri dituzte Harresi aretoan. Erakusketa hori maiatzaren 10ean jarri zuten eta domekara arte egingo da zabalik.

Marrazkirako eta pinturarako zaletasun handia dago arrasatearren artean. Hala pentsatu beharko dugu, 1993. urtea ezkerro, ia egunero, Monterrongo goiko solairuan, teilatuean, margotzen ibiltzen den jende kopuru handia kontuan hartuta. Izan ere, Monterrongo Marrazki eta Pintura ikastaroko irakasle Amaia Bengoa bergararrak esan digunaren arabera, ehun eta berrogeita hamar lagun inguru dabilta Monterronen jo eta ke, euren aisialdian, margolanak egiten. "Eguneroko kontuetatik ihes egiteko eta estresa alde batera uzteko aproposa da zaletasun hau", azpimarratu zuten ikasleetako batzuek.

Aste barruan ikastaroak arratsaldean izaten dira, eta zapatuetan, berriz, goizean egiten dituzte. Taldeak adinaren arabera egin dituzte, eta bederatzi urteko nes-



IKER BARANDIARAN

ka-mutikoetatik, hirurogeita hamar urte bitarteko gizon eta emakumeak daude.

Urtero, ikastaroari amaiera emateko, Harresi aretoan ikasleek egindako lanen erakusketa egiten dute, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Aurten, ia laurogeita hamar ikaslek hartu dute parte, eta gehien erabili dituzten tekniken artean, olio nabarmendu beharko genuke. Horrez gainera, akuarelaz egindakoak ere aurki ditzakegu, baita pastelarekin edo

ikatzarekin egindakoak ere.

LOREAK ETA NATURA HILAK NAGUSI

Marrazki eta Pintura ikastarokoek euren margolanekin Harresi aretoa lepo bate dute. Margolan gehienak olioaz eginak daude, baina badira ikatzez eta beste teknika batzuek egindakoak ere.

Marraztu dituzten gauzez gain, loreak eta natura hilak dira nagusi, baina bestelakoak ere badaude: paisaiak, itsasoa, mendiak, errekek, eta beste batzuk.

KULTURAPILULAK

Udaleko Gazte Sailak 'Gazteak eta aisialdia' lelopean XIII. Argazki Lehiaketa antolatatu du

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak *Gazteak eta Aisialdia* lelopean Argazki Lehiaketako XIII. aldia antolatu berri du. Lehiaketa horren helburu nagusia gazteen artean argazki zaletasuna sustatzea da. Parte hartzaileendako bi kategoria bereiztu dituzte: bata, Debagoieneko 13 eta 17 urte bitarteko gazteendako, taldeka zein banaka; eta bestea, 18 eta 35 urte bitarteko edozeinendako.

Dena dela, parte hartzaileek kontuan hartu beharko duten gaiak *Gazteak eta aisialdia* da, eta argazkiak koloretan zein zuri-beltzean aurkeztu ahal izango dituzte. Formatuari dagokionez, Debagoieneko gazteen kategorian librea izango da; 18 eta 35 urte bitartekoan kasuan, ordea, gutxienez, 18 x 24 cm izan beharko ditu eta, gehienez, 30 x 40 cm. Bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, eta argazkiak aurkezteko epea urriaren 15ean amaituko da. Urriaren 22tik 31ra bitartean erakusketa egingo dute.

'Putz' aldizkariaren hamalagarren alea salgai dago herriko dendetan eta tabernetan

Apokaliftin Kultur Elkarteak *Putz* aldizkariaren hamalagarren alea kaleratu berri du, eta dagoeneko ohiko dendetan eta tabernetan dago salgai aldizkaria, hiru euroren truke. Aldizkariaren egileek jorratu dituzten gaien artean, Pako Aristi idazleari egindako elkarrizketa sakona aurki dezakegu. Aristik, lasai asko, bere bizitzako pasarte ugari kontatzen ditu eta irakurleei bere barrenak hustu egiten dizkie. Horrez gain, *Putz*-ekoek *Gastronomia* atala berreskuratu dute, eta ale berrikoa nahiko gordina da.

Beste gai batzuen artean, Antton Mendizabalen *Autodeterminazioa eta globalizazioa* izeneko ponentziaren laburpena ere argitaratu dute, eta gerraren gaineko hainbat esamolde ezagun batu dituzte. Horiez gain, ohiko istorio komiko eta bitxiak ere ez dira falta. Horra hor, *Gora Euskadi txortolari* izenekoak, *Sevillaramion the road by bus*, *Miguel Sanzen curriculum vitae*-a eta herritarrei egindako kale inkesta, besteak beste. Poemak ere badaude, jakina, bai eta komikiak ere.



IKASTARO BERRIAK

INGURUMEN IKASTARO LABURRAK

Zer egin zaborrarekin?

EMAKUME GAZTEENDAKO IKASTAROAK

Eskalada ikastaroa

Autodefentsa ikastaroa

Plaza mugatuak



Izena emateko edo informazio gehiagorako Emakume Saila. Tel.: 943 79 41 39
Gazte Bulegoa. Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

E, TXO!

GAZTETXEKO AZOKA ALTERNATIBOA EGINGO DUTE

Aurreko asteetan izan dituzten atzerapenak alde batera utzita, gaztetxe partaideek jakinarazi digute Gaztetxe Azoka Alternatiboa oraingo asteburuan egingo dutela. Seber Altuben, frantziskotarren egoitzan, bigarren eskuko produktuak jarriko dituzte salgai: arropak, jostailuak, diskoak, liburuak... Gaur bertan, egubakoitza, 18:00etatik 21:00etara egongo da zabalik azoka. Bihar eta etzi, berriz, goizez eta arratsalde zabalduko dute. Salgai jarriko dituzten produktuak truke borondatea eskatuko dute.

GIPUZKOAKO GAZTETXEEN ALDIZKARIA, KALEAN

Gipuzkoako Gaztete Koordinadorak aldizkaria atera berri du. Aldizkari berri horrek *Baskontainer* izena dauka eta lehenengo zenbakia doan banatzen ari dira. Aldizkari hori eskuratu gura baduzu, Arrasateko gaztetearen aurkituko duzu.

TXATXILIPURDIREN UDALEKUAK

Aurten ere Txatxilipurdi aisialdi elkarteak umeendako eta gazteteendako udalekuak antolatu ditu. Aukera zabala eskainiko dute Txatxilipurdikoek: 1999an jaiotakoendako, Bilin Bolonka; Haur Hezkuntzako hiru eta sei urte bitartekoendako, Babylekuak; Lehen Mailako Hezkuntzakoendako, udaleku irekiak; eta nagusiagoendako, mendi ibilaldiak, txangoak eta bestelakoak. Izena eman, lehenbailehen, Txatxilipurdin, Pablo Urangan, edo 943 705446 telefonoan, ekainaren 18a aurretik. Eta adi ibili: dagoeneko jende asko animatu da eta udalekuetarako oso plaza gutxi gelditzen dira!

GUREGAIK/ COMENIUS PROGRAMAREKIN ERRUMANIARA

Arizmendiko lau ikaslek euren lanak aurkeztu zituzten Errumanian

IKER BARANDIARAN

Arrasateko eta Aramaioko lau neska Bukarest hirian (Errumania) egon dira astebetetz, Comenius programaren bitartez. Hango parlamentua, museoak eta eskolak bisitatu eta ikasleak ezagutu zituzte.

Arizmendiko Almen Eskolan Batxilergoko lehenengo maila ikasten dabilen lau ikasle -Idurre Osa, Maddalen Nafarrate, Saioa Aldasoro eta Nagore Borrego- Errumanian izan ziren mar txoaren bukaeran.

Izan ere, beste herrialde batzuetako lagunekin hartu-emanak lantzeko ikasgai bat jorratzen dute Almen Eskolan, eta ikasgai hori nazioarteko Comenius pro-

Comenius programaren bitartez, Bukarest eta Zurich bisitatu zituzte

gramaren barruan dago. Almengoek programa horrekin lotutako hainbat proiektu prestatu zituzte ikasturterako.

NAZIOARTEKO TOPAKETA

Ikasgai horretan lan handien egin duten ikasleen artean zozketa egin, eta lau neska horiek Erru-



ARRASATE PRESS

Bukarest hiria ikusi eta hango gazteak ezagutzeaz gain, Zurich-en ere izan ziren.

maniarra jo zuten, Almenen Comenius programarako prestatzen diharduten lanak aurkeztera: gaz-

teen gaineko antzezlanak, Interneten zabaldu gura duten orriak eta argazkiekin eginiko ipuina.

LOTSABARIK/ Leire Baltzategi

“Txikitan, aktore izan gura nuen”

IKER BARANDIARAN

Leirek diosku lotsatia dela, batez ere, taula gainean inprobisatu behar badu. Aldiz, aurrez zerbait prestatuz gero, oso eroso ibiltzen da taula gainean. Hala erakusten digu Txatxiartisten emankizunetan.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Telebista asko ikusten nuen, eta aktore izan gura nuen. Gero, amets hori alde batera utzi dut. Egun, matematika dut gustuko, baina ez dakit zer izan gura dudan.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Urte asko dira eta... ez dakit.

Espero dut mutilarekin bizi izatea, bi seme-alabarekin. Arrasaten bizi izan gurako nuke, baina herri txikiak ere ondo daude.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Nik orain hamahiru urte ditut eta gustura nago. Esaten dute edade ideala hamazortzi urte direla, baina ikusi artean...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, laguneri eta ikasketei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Une honetan, ikasketak ondo bukatzeak. Gero, oporrek.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Oso lotsatia naiz. Jende aurre-

an barregarri geratzeak asko larritzen nau. Inprobisatu behar badut, larritu egiten naiz. Aurrez zerbait prestatuz gero, ordea, ez.

• Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?

Nire gauzekin arduratsua naiz, baina jenio bizia daukat eta jeloskorra naiz.

• Arrasaten ligatzen da?

Batzuetan bai, esaten dutena baino gehiago.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ilea eta atzamarrak, atzazalak jaten ez ditudanean.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Lehenengo fisikoari begiratzen diot; gero, zelakoa den.



ADINA: 13 urte • IKASKETAK: DBHko 2. maila • ZALETASUNAK: Saskibaloian egitea eta lagunekin irtetea LIBURU BAT: 'Los escarabajos vuelan al amanecer' • FILM BAT: 'Titanic' • MUSIKA TALDEA: La Oreja de Van Gogh • KIROL TALDEA: TAU Baskonia eta Athletic

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



ARRASATE HOTELA

Biteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

BEHEKOTABERNATIK

Pedro Arizmendiarieta

RUMBA TABERNAKUE

XABIER URZELAI

Pedro mondraguetarra da. San Viatorren ikasi euen gaztetan, eta gero Eskola Profesionalera juen zan, Maestria ikesteko asmotan. Sekula be ez dau lantegi baten lan egin. Ikasketak amaittu berri, soldadutzara juen zan, eta handik etorri zanian Rumba tabernan lanien hasi zan. Gaur arte.

Amets bat?

Ondo bizi izetie.

Eta amets txar bat?

Ingurukuei gauza txarren bat pasetie.

Egin dozun azken biajiej?

Abuztuen Kanarietara juen gitzen, Lanzarotera.

Txartel horixe, zeñei?

Jente askori. Politikuei, esaterako.

Eta gorrixe?

Duda barik, Aznarrei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Telebisiñuen emuten dittuenak ikusten dittut / *La carretilla del vasco* / Abesti euskaldunak gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukiej?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernako txikiteue.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Bixek. Etxien zapatillak eta kalien zapatak.

Ze gustetan jatzu gehixen Mondragoetik?

Kostaute, baiñe herrixe ondo geraketan dabillela.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Danok hobetuko geunkiena, aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskal Herriko egoerie konponketan ahaleginduko nitzake. Pakie lortzen ahaleginduko, nahiz eta ez dan bat be samurre.

Bizio bat?

Egunero, ahal badot, zortzi edo hamar bat kilometro oiñez egittie.

Mendi bat?

Udalatx.

Juen zara aspaldixen?

Lehen jueten nitzen, baiñe juen dan aspaldixen ez.

Bizi izetera hiri batera juetkotan, nora?

Kostaldera juengo nitzake. Zarautzera edo Donostiara, esaterako.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Asko daguz. *Lazkao Txiki* esango dot; Mondraguen ezagutu neuen *Lazkao Txiki*, oin dala 30 urte.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?



X.U.

“Neure andriaren aittari jarri eutzien Rumba ezizena. Horregaittik deiketan da tabernie Rumba”

Nik ez dot horretarako balixo. Inokin be ez.

Eta ezagutu nahiko zeunkiena?

Pelé.

Telebisiñoko programa bat?

Sorginen Laratza.

Eta irratikue?

Arrasate Irratixe eta Segura Irratixe, bixek, entzuten dittut.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Premiñe daguen zerbaittetan edo.

Noiztik Rumba tabernan lanien?

Oin dala 21 urte hasi nitzen Rumba tabernan lanien.

Zeñek zabaldu euen Rumba tabernie?

Neure andriaren aittek eta tiok zabaldu euen Rumba tabernie.

Zenbat urte dauko Rumba taberniek?

Egixe esan, ez dakit zenbat urte daukon Rumba taberniek. Guk oin dala 35 urte erosi geuken.

Maestriako ikasketek ez daue askorik balixoko tabernan lan egitteko, ala?

Ez; tabernan lan egitteko, horreik ikasketok ez daue ezerta-

“Atsaldien baiño jente gutxiago ibiltten da txikiteuen goixien. Gabekue ez jat gustetan”

rako be balixo.

Zergatik Rumba eta ez Salsa?

Neure andriaren aittari *Rumba* ezizena jarri eutzien. Eta horregaittik deiketan da tabernie hola-xe. Hori uste dot, behintzet.

Goixeko txikiteue ala atsaldiekue gurago?

Goixien jente gutxiago ibiltten da, baiñe bixek gustetan jat. Gabeko txikiteue da gustetan ez jatena.

Oker ez banago, tabernie barrizteko asmue dauketzue.

Bai; laster goittik behera barriztu biher dogu tabernie.

Zein da jentiek gehixen jaten dauen pintxue?

Tortillak, esango neuke. Jentiarri bakalau-tortillie gustetan jako gehixen.

Ze kirol emaitza jarriko zeunke gustora tabernan dauketzuen kirol taulan?

Hamengo talde danek irabazi egin dauela jarriko neuke gustora. Nahiz eta hori be ez dan bat be errexa.

Reala ala Athletic?

Ba, leleno Athletic eta gero Real.

Eta Mondra?

Hirugarren.

NIREBIDAIAHURA/ Joseba Ezpeleta

Zeelanda Berrira / 2002ko martxoan eta apirilean

Josebak abuztuko oporrak aurreratzeko aukera izan du, eta neskalagunarekin batera, Itziarrekin, Zeelanda Berria bisitatzeko aukera izan du orain dela gutxi. Martxoaren 8an abiatu ziren Zeelanda Berrirantz, eta bi egun behar izan zituzten hara iristeko.

Auckland-era iritsi berri, Mondragoeko bikoteak hegoaldean dagoen uharterako bidea hartu zuten; hortaz, koraturatu orduko hegazkinean zeuden berriro ere. Lehenengo egunak, ordu aldaketa dela eta, gogor samarrak izan ziren, baina ohitu bezain laster, lurralde hark eskaintzen dituen aukera guztiak aprobetxatu zituzten. Zeelanda Berriko hegoaldeko uharterean, Christchurch-en, auto bat errentan hartu eta lurralde hura ikusten hasi ziren. Josebaren esanetan, Zeelanda Berrian ohikoak ez diren gauza asko ikus daitezke, baina fiordoak benetan ikusgarriak ei dira: “Sekulakoak dira fiordoak. Milford Sound fiordoarekin bat 1.700 metroko mendia hasten da, Mitre Peak mendia, hain zuzen ere. Atera kontuak, itsas mailatik hasi eta 1.700 metroko forma bat”.

Fiordoena adibide bat baino ez da; izan ere, hemen aurkitu ezin daitezkeen gauza asko dago han. Josebak eta Itziarrekin egun gehientsuenak hegoaldean igaro zituzten. Parke nazional batetik beste batera. “Han asko daude. Lurralde osoa parke nazional bezala dago, eta ikusteko modukoak dira”. Bikote horrek hainbat *trekking* ere egin zituen: “Munduko *trekking* politena Zeelanda Berrian ei dago, eta jende gutxi egongo zela uste bagenuen ere, ezinezkoa izan zen *trekking* hori egitea. Hila-bete eta erdi itxaron behar genuen ibilbide hori egiteko”.

Hala ere, bikotea ez zen gora begira egon: “Mendian asko ibili gara. Hainbat *trekking* egin ditugu, Rutebourn-eko edo Abel Tasman parke nazionaldean dagoena, adibidez”. Egun gehientsuenak hegoaldean igaro eta gero, azkeneko astea iparraldeko uhartera bisitatzeko aprobetxatu zuten. Hango hegoaldeko aldeko erde hotz handiagoragiten duen. Iparraldeko sumendiak ikusgarriak dira, baina hegoaldean politago ei da. “Hegoaldean itsasoko animaliak ikusten ere asko gozatu genuen: baleak, izurdeak, itsas txakurrak...”. Gainontzean, txoriak kenduta ez ei dago animalia askorik. Oraingo abuztuan lan egitea egokituko zaio Josebari, eta oraindik ez dauka argi nora joango den datorren urtean. Patagoniara, akaso.

XABIER URZELAI



“Fiordoek asko harritu ninduten. Sekulakoak ziren”

“Hondartzan geundela, ia itsas txakur bat zapaldu nuen”



Cook mendiaren -Zeelanda Berriko mendi altuena- ikuspegia.

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Irudian, Musakolako zaharren elkarteko Briska Txapelketako irabazleak: Maria Begoña Beobide eta Maria Milagros Bengoa.

Musakolako urteroko tute, briska eta mus txapelketak jokatu zituzten

IKER BARANDIARAN

Joan den egunean, maiatzaren 9an, Musakolako jalei hasiera eman zieten Musakolako zaharren elkarteko. Eta, aurreko urteetan moduan, astean barrera hasitako tute, mus eta briska txapelketen finalak jokatu zituzten Musakolako zaharren elkarteko egoitzan egunean bertan.

Mus Txapelketa hamasei bikote jokatu zuten. Martitzenean hasi zuten txapelketa eta egunean jokatu zuten finala. Azkenean, Anton Madinabeitiak eta Juan Jose Gorosabelek osatutako bikotea izan zen garaile.

Tute Txapelketari dagokionez, hogeik bi bikote jokatu zuten. Eguaztenean hasi zuten txapelketa, eta egunean jokatu zuten finala. Azkenean, Gregorio Etxeberria Tolosa-k eta Leon Madinabeitiak osatutako bikotea izan zen txapelketako irabazlea.

Briska Txapelketa, berriz, astelehenean hasi zuten zazpi bikote, eta astean arratsaldero jokatu eta gero, egunean finala

jokatu zuten. Bikote irabazlea Maria Begoña Beobidek eta Maria Milagros Bengoak osatu zuten.

Bikote irabazleek txapela eta garaikurra jaso zituzten. Baita txapeldunordeek ere. Briskan, eta emakumeei dagokionez, garaikurraz gain, zapia ere eman zieten. Hain justu, egunean bertan

izan beharrean, Musakolako jaien auzoko erretiratuen afarian, egubakoitzean, eman zizkieten sariak. Giro aparta izan zuten afarian bertan eta ia berrehun erretiratut hartu zuten parte. Eta gainera, parte hartzaileen artean opariak zozketatu zituzten eta ederto pasa zuten.

BRISKA, EMAKUMEA

Harritzekoa izan da Briska Txapelketan emakumeek bakarrik jokatu izana; aldiz, tute eta mus txapelketetan gizonezkoek bakarrik jokatu dute.

Musakolako zaharren elkartean bertan kartetan zebiltzan gizonezko eta emakumei kontu horren gainean galdetu genien, eta ez ziguten erantzun argirik eman. Izan ere, galdetutako gehienek ohitura kontua dela esan ziguten. Emakume batzuek briskan eta seikoen jokoan bakarrik egiten dakitela esan ziguten, eta beste joko batzuk ikasteko interes txikia dutela esan ziguten.

Ea gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun horiek saihestuz joaten garen!

Eskarmentua duten jokalaria

Badira hogeitau urte baino gehiago emakume koadrila pare bat arratsaldero-arratsaldero Musakolako zaharren elkarteko egoitzara kartetan egitera joaten hasi zela. Oraindik ere hantxe batzen dira eta briskan trebezia handia hartu dute dagoeneko. Han egoten dira arratsaldero, kale egin barik, "gu hondartzara ez gara joaten-eta"

LABUR

1952ko kintoek urteroko bazkaria egingo dute bihar, zapatua, Batzokiko jatetxean

Arrasateko 1952ko kintoek, hau da, 1931. urtean jaiotakoek, bihar, zapatua, urteroko bazkaria egingo dute. Eguerdiko ordu batean, San Juan Bautista elizan Pedro Salaberrik esandako meza izango dute. Gero, txikiteoa egingo dute. 14:30ean, berriz, bazkaria egingo dute Batzokian. Interesatuak Angel Domínguez, Paco Bonet edo Rafa Fernández-engana jo beharko dute, ahalik eta lasterren.

Maiatzaren 30ean, Kalagorrira txangoa egingo dute Abaroa zaharren elkartekoek

Abaroa zaharren elkartekoek maiatzaren 30ean Kalagorrira -Calahorra- txangoa egingo dute. Irteera horretan, Kalagorri ikusiko dute, hango azokara joango dira eta aisialdirako denbora ere izango dute. Horrez gain, Azagrako Venecia hostalean bazkalduko dute. Interesatuak 17 euro ordaindu beharko dituzte, eta maiatzaren 21ean, martitzenean, eman beharko dute izena, Abaroan.

ZAHARRAK AHOTIK

Pedro Miguel López

TXIRRINDULARI IZANDAKOA

Pedro Miguel 1934an jaio zen, Dulantzín. Txikitan Oñatira joan, eta gerora, Leintz Gatzagan eta Arrasaten ere bizi izan da.



Zer dela eta etorri zinen Debagoienara?

Dulantzín jaio nintzen, baina hamabi urte nituenean gurasoak, arrebak eta ni Oñatira joan ginen janari denda baten kargu egitera. Urte batera, denda itxi eta Leintz Gatzagara jo genuen.

ibarrera etortzean, zerk harritu zintuen gehien?

Gehien harritu ninduen euskara entzutea izan zen. Sasoi hartan, Dulantzín gaztelania bakarrik entzuten zen.

Behin Leintz Gatzagara bizi izatera joan zinen lanean, lanean hasi zinen...

Aita eta biok Elmako galdategian lanean hasi ginen, eta egunero bizikletan joaten ginen Arrasateraino. Noizbait, elurrarengatik eta, Arrasatera jaitsi ezinik geratu ginen. Hamaika urtez Leintz Gatzagan bizi izan ginen. Gero, Musakolara joan ginen, eta

han jarraitzen dugu. Elmako galdategian 33 urte eman nituen. Gero, *probadore* ibili nintzen, 1992an aurre-erretiratu nintzen arte. Lau seme-alaba eta bi iloba dauzkat.

Txirrindulari ezaguna zinela entzun dugu...

Egunero aita eta biok Leintz Gatzagatik Arrasatera bizikletan joaten ginen, eta, zelanbait, trebatuta nengoan. 1957an, bezperan bizikletan Donostiara joan eta hurrengo egunean amateurren Gipuzkoako Txapelketan ihes egin eta irabazi egin nuen. Eta 1957ko Gipuzkoako Biran azkeneko etapa irabazi nuen.

Txitxinpe

BIZKAIARAK
KINAKERAK
DARREN ARABAK
ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



ARRASATE
Julen Barandiaran
Maiatzaren 12an, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoen partetik.



ARRASATE
Sonia Alonso
Maiatzaren 2an, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoen partetik.



ARRASATE
Ainhoa Gurrutxaga
Maiatzaren 20an, 21 urte.
Zorionak, *torera!* Koadrilakoak.



ARRASATE
Monika Rodríguez
Maiatzaren 17an, 25 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Maite Madariaga
Maiatzaren 2an, urtebetetzea. Zorionak! Umezaintzako laguntxoak.



ARRASATE
Mikel Ugarte
Maiatzaren 24an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mikel Etxenagusia
Maiatzaren 22an, 13 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aritz Elorza
Maiatzaren 18an, 18 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARAMAIO
Miguel Angel Burgi
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak! Goiatz, Beñat eta amatxo.



ARRASATE
Mertxe Revilla
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak! Aitor eta Leire.



ARRASATE
Mikel Apellaniz
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Eider Roa
Maiatzaren 24an, 14 urte.
Zorionak! Nerea Sánchez eta Ane Losada.



ARRASATE
"Felitxo"
Maiatzaren 18an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mariaje Otxoa
Maiatzaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.




ARRASATE
Amalur López
Maiatzaren 16an, 24 urte.
Zorionak! *Pitilin moñuen* partetik.



ARRASATE
Martxel Aranzadi
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Amama eta aitaita.



ARRASATE
Jokin Eriz
Maiatzaren 17an, 11 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Markel Zabala
Maiatzaren 22an, 25 urte.
Zorionak, *Martxi!* TMT.



ARRASATE
Saioa Ojanguren
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Aita, ama eta Nago. Eta lankidiek!!!




ARRASATE
Oihana Otxoa
Maiatzaren 16an, 28 urte.
Zorionak, *Novia 2000!* Etxekoak.



ARRASATE
Juantxo Iñarra
Maiatzaren 21ean, 48 urte. Zorionak! Mertxe.



ARRASATE
Aitor Azkarate
Maiatzaren 18an, 9 urte.
Zorionak, *Shin Chan!* Aitaitxo, amatxo eta Josu.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku! Oalora lizentziaduna, 31.

Adi!

Hurrengo zenbakian, maiatzaren 17tik 31ra bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

OREKAN DATZA EDERTASUNA



AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK

1. Diagnostikoa:

diagnostiko pertsonalizatua egingo dugu, arazoaren iturburu zain den jakiteko eta, horrela, arazo hori konpondu ahal izateko.

2. Tratamendua:

Tratamendu lokala: zitokosmetika.
Tratamendu orokorra: balnoterapia, termosaua, drainadura linfatikoa, aparatologia, entzima-osagarriak.

3. Kontrola eta jarraipena

ORDAINTZEKO ERA

Aurrez, % 10eko deskontuarekin.
Sei hilabetean, interes barik.

ESKATU AURREKONTUA
INONGO KONPROMISO BARIK.


LIRAINEN, ZERBITZU HUTSA BAINO GEHIAGO ESKAINIKO DIZUGU

KIRURGIA ESTETIKOA

Mediku estetizista

- Liposukzioak.
- Bularren handitze eta txikitzea
- Laser bidezko depilazioa
- Dietak / Mesoterapia

Lehen



Orain



MIKROPIGMENTAZIOA
Minik gabekoa



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 52 17

SOLARIUM TXARTELA

Zutikako solariuma
Etzandako solariuma duxarekin.

10 saio + 1 = 54'09 euro

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko maiatzaren 17a / 27. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Manex Agirre aramaioarra bigarren geratu da Arabako Bertsolari Txapelketan

UBANE MADERA


Manex Agirre aramaioarrak bigarren postua eskuratu zuen Arabako Bertsolari Txapelketan, zapatuan. Gasteizko Printzipal antzokian jokatu zen lehiaketa. Aramaiotik autobuskada bat herritar joan zen Manex animatzera. Manex oso gustura dago egindakoarekin.

Aupa Manex, Aramaio hirekin zioen pankarta eta guzti joan zen autobuskada bete aramaioar Manex Agirre bertsolari gaztea animatzera. Eta animatu ere ondo animatu zuten. Hala diosku Manexek berak: "Eurengatik izango ez balitz, ez dakit zer gertatuko zen. Ulu asko egin zuten eta asko entzuten zen. Denei eskerrak eman gura dizkiet".

Eta horrela, herritarren berotasunak lagunduta eta, jakina, saio bikaina eginda, Asier Otamendi txapelkunaren ondoko lekua eskuratu zuen Manex Agirre aramaioarrak.

URDURI, BAINA GUSTURA

Ofizioka urduri samar ekin bazion ere, gustura bukatu zuen lehenengo ekinaldia Manexek:



RAUL BOGAJOI/ARGAZKI PRESS

Gustura eta pozik bukatu zuen Manex Agirrek Printzipal antzokiko saioa.

"Saio polita izan zela uste dut". Hamarreko txikian, berriz, txapela eskuratu zuenarekin aritu zen, hor ere gustura: "Asierrekin abestea beti da plazerra, hark

zabaltzen du bidea". Bakarkako ariketa, berriz, gogorxeagoa izan ei zen, baina hor ere aurrera egin zuen aramaioarrak. Eta lortutako puntuei esker, bigarren txan-

para pasatu zen Otamendirekin lehian. Biak ofizioka eta kartzelako gaian aritu ziren. Azkenean, Asierrek 507 puntu lortu zituen eta Manexek, 475. Zorionak!

MANEX AGIRRE
"Berriro patera bat hurbiltzen ari da Europa zaharraren sabel ta kabira espabilatuago izango balira. Zugan guztiak daudu nigana begira, gero begirik gabe iritsi ohi dira"

TXAPELDUNARI ERANTZUTEN

Txapelketan kantatutako bertso bat aukeratzeko esan diogu Manexi, gure aldizkarian idazteko. Goian duzuen aukeratu du Manexek. Asier Otamendirekin aritu zen ofizioka hamarrekotxikian. Tangerreko eta Tarifako portuak egokitu zitzaizkien, Tarifakoa Manexi. Eta gaur egun hain larria izaten ari den etorkimen gaia landu zuten biek hala biek.

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

Arka galduaren bila, arka galduaren bila

1 Mariano Raxoi gaztelaniaren ahoskatzaile trebeenetakoa denak perla gutxi jaurtiki dizkigu aurreko astean prentsaurreko batean entzun geniona bezalakoak. "Tonto del culo" deitu ez zion ba, kazetari ustez harroputz bati, egin zion galdera gustatu ez zitzaiolako? Mikrofono batek zer egin dezakeen: bere haritik zintzilikaturik ageri dira askotan politikari baten duintasuna edo lotsagabekeria...

Bertsolariek dioten moduan, publikoarekiko distantzia mantentzen laguntzen duen ezkutua da mikrofona. Gezi zorrotz bihurtzen ez denean, noski. Zenbat hitz galduko ote

ziren mikrofonoaren beste aldean?

2. Uste dut Joseina Etxeberria "musikazaleari" irakurri diodala honako hau: pena hartzen duela bere bizitzan zehar entzun ezin izan dituen doinu galdu horiengatik, munduan sortu baina gure belarrietara iritsi ez diren milaka kantu eta melodia bikain horiengatik... Ez du arrazoirik falta: auskalo munduan sortu diren pieza guztien zenbateko



"Tonto del culo deitu zion kazetari ustez harroputz bati"

portzentajea iritsi den gure belarrietara, baina ez dut uste handiegia izango denik.

3. Borgesek bere biblioteka partikularra sortu zuen ipuin batean: liburutegi infinitu bat deskribatu zigan, non izan daitezkeen liburu guztiak aurkitzen diren. Hitz eta letren konbinaketa posible guztiak. Gertatu diren eta gertatzeko dauden historia edo istorio guztiak. Dena. Gure bizitza kontaktzen dutenak, inoiz

gertatuko ez dena kontaktzen dutenak, zentzurik ez dutenak...Dena.

Zoritxarrez ez dakigu liburutegi hori non dagoen, Dena aurkitzea ezinezkoa dela barneratua du gure kontzientziak aspalditik. Eta horregatik mintzen nau neu ere, Joseina bezala, orain arte galdu dudana guztia berreskuratu ezinak...zenbat mikrofonopeko deklarazio konprometitu, zenbat doinu eta kanta izugarri. Borgesek zuen kezka bera dugu denok barruan, proportzio txiki batean bada ere: bizi ezin izan dugun guztia biltzen duen arka hori aurkitzea.

LABUR

Zuberoarendako batu beharrekotik 500 euro falta dira

Erantzun ona izaten ari da Aramaion Zuberoaren alde egiten ari diren ekimenak. Horren adierazle da Aramaion batu beharrekotik 500 euro falta dira dagoeneko bono-laguntzak salduta. Hala adierazi digu Pepe Carreterok, Zuberoari laguntzeko taldeko kideak. Aurrera begira, berriz, taldeak Zuberoara bertara joateko bidaia antolatzeke asmoa duela ere adierazi digu. Ekain aldera egingo dute irteera hori.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erztzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

ESKOLA GARRAIORAKO

Aramaioiko Udalak eskola garraiorako dirulaguntza deialdia egin du. Lau ikasle motatako taldeei zuzenduta dago: DBH (Arrasateko Institutukoak izan ezik); LOGSE, erdi edo goi mailako heziketa zikloak eta unibertsitate mailako ikasketak. Dirulaguntza eskatzeko, ikastetxeko matrikularen ziurtagiria edo matrikularen ordainagiria aurkeztu behar dira maiatzaren 27a baino lehen.

ZINEMA

El Jorobado de Notre Dame
II filma emango dute domekan, 17:00etan.

ARETO FUTBOLA

Bihar, zapatua, neskek Menesianosen kontra jokatu dute Langraitzen, 11:00etan. Mutilek Francisco de Vitoria taldea izango dute aurrez aurre, izen bera duen ikastetxean, 11:15ean.

JON AGIRREAREN ALDE

Jon Agirre presoak kartzelan 21 urte bete dituela-eta, ekitaldiak antolatuta dituzte Aramaion. Bihar, zapatua, 19:30ean, manifestazioa egingo dute; kiroldegitik irten eta herriari buelta eman eta gero, kiroldegira itzuliko dira. Gero, dispersioaren gaineko bideo saioa eskainiko dute eta ondoren eskualdeko presoak gogoratuko dituzte. Ekitaldi nagusiaren ostean, bertso afaria egingo dute.

ZALDIBARKO LEHIAKETA


Rayo Aldeano talde aramaioarra final-laurdenetara iritsi da Arrasateko areto futboleko Zaldibar txapelketan. Zapatuan, 17:00etan, Etxerat taldearen kontra jokatu dute.

Tellamendiko gurutzea txukuntzeko laguntza eskatu dute herritarrei

UBANE MADERA

Datorren uztailan, Tellamendiko gurutzea berriro ipini zutela gogoratuko dute Aramaion. Ospakizun txiki bat antolatzen ari dira zenbait herritar. Edozelan ere, hori baino lehen, gurutzea txukundu gura dute. Eta herritarren laguntza eskatu dute.

Orain dela 25 urte ipini zuten berriro Tellamendiko gurutzea bere lekuan, Guardia Zibilak lehergailuekin bota eta gero. Martxoaren 5ean altxatu zuten aramaioarrek, baina uztailearen 17ra arte itxaron zuten inaugurazio ekitaldia egiteko. Aurten, urteurren berezi hori ospatzeko, ekitaldi berezia antolatu dute; hori ere uztailan izango da, baina lehenengo, gurutzea txukundu gura dute; duen oxidoa kendu eta berriro margotu, hain zuzen. Hori dela eta, orain dela 25 urte gurutzea ipintzeko lanean ibili zen taldeak eta Orixol Mendi Elkartek aramaioar guztiei lan horretan laguntzeko eskatu die, Tellamen-



Gurutzea lixatu eta berriro margotu gura dute.

ORIXOL MENDI ELKARTEA

diko gurutzeak herritarrendako duen esanahia kontuan hartuta. Asmoa da ahalik eta agudoen egitea; izan ere, behin San Juanak helduta, hortik aurrerako aste-

buru gehienak okupatuta daude jaiak direla-eta. Ekainaren 1ean ekitea erabaki dute. Zapatua da, eta asmoa da 08:30ean irten eta iluntzera arte lanean jardutea.

Udalak ordainduko du behar den materiala, baita egun hartako bazkaria ere

Aramaioiko Udalak ordainduko du behar den materiala, baita egun hartako bazkaria ere. Domekan, goizez ibiliko dira lanean. Hortaz, hortxe dago deia. Interesa duenak Mertxe Mondragonekin edo Rafa Bengoarekin berba egin beharko du.

ERAKUSKETA

Bestalde, inaugurazioa baino lehen erakusketa bat antolatzeko asmoa ere badute. San Martintan ipini gura dute, San Kristobal jaietara arte. Horretarako, dokumentuak, argazkiak, idatziak...batzen ari dira; hortaz, zerbait izanez gero, ekimen horretan parte hartzeko eskaera ere egin die herritarrei.

Bañera elkarteko bi taldeek aurki bukatuko dute aurtengo denboraldia

UBANE MADERA

Bañera Kirol Elkarteko Zuzendaritza batzordea pozik dago aurtengo areto futboleko taldeek lortutako emaitzekin. Saillapean aurre-aurrean ez geratu arren, denboraldian barrena erakutsitako hoheranzko joera nabarmendu dute. Bai mutilen taldean, zein neskenean.

Bukatzeaz dago areto futboleko aurtengo txapelketa. Partidu bakarra edo, asko jota, bi geratuko zaizkie Bañera elkarteko nesken zein mutilen taldeei (emaitzen arabera). Mutilen taldea laugarren edo bosgarren postuengatik lehian ari da; neskek, berriz, seigarren geratu dira, zazpiko taldean. Ez dira emaitzarik onenak, baina oro har, bi taldeek onera egin dute jokoan denboraldia aurrera joan ahala, neskek, bereziki. Eta zailtasun berezi batzuei ere aurre egin behar izan diete. Halaxe kontatu digu Josu Bideburuk, Bañera Kirol Elkarteko presidentek. Haren esanetan, "mutilen kasuan, kadete mailan jokatu arren, zortzi jokalaritik bost infantil mailakoak izan dira. Ondorioz, hasieran partidu gehienak galdu egin genituen, baina denborarekin konfiantza hartzen hasi ziren eta partiduak irabazten". Nesken kasua bestelakoa izan da: "Nesken taldea izanda,



Mutilak eta neskek gertu izanez gero, aurrera segitzeko asmoa dute Bañera Kirol Elkartekoek.

talde mistoen kontra jokatu behar izan dute; adibidez, badaude guztiak mutilak izanda, neska bakarra duten talde mistoak". Ondorioz, neskek askoz hobeto jokatu dute bakarrik neskekin osatutako talde baten kontra jokatu izan dutenean. "Baina neskekin bakarrik osatutako taldeak zazpitik hiru besterik ez da".

AUERRERA BEGIRA

Datorren urteko denboraldiari begira, berriz, Josuk adierazi digu neska gehienek aurrera segitzeko asmoa dutela. Eta mutilen taldean ere gehienek aurrera segitzekoan dabilzala, "baina hori datorren urtean ikusi behar. Helburua da herritarrei futboleko aritzeko aukera ematea". Adibi-

dez, gaztetxoagoekin (10-12 urtekoekin) talderen bat sortzeko ideia dutela kontatu digu.

Bestalde, Josuk gaineratu digu Bañerako Zuzendaritza batzordeak eskertuko lukeela laguntza handiagoa hartzea. Gaur egun, hiru lagunek osatzen dute eta urte askoan jarduteaz gain, gutxiegi direla uste dute.

ERRETRATU ZAHARRA

Gerra aurreko azken San Isidro jaiak

Hona hemen Espainiako gerra baino lehenagoko azken San Isidro jaien irudi polit bat. Gero, urte askoan debekatuta egon ziren. Edozelan ere, jaiak debekatu baino lehen, ohitura zen auzoko zaharren eta gazteen arteko futbol partidua jokatzea jaien bigarren egunean. Eta partiduaren aurretik kalejira egiten zuten futbol zelairaino, asto eta guzti. "Ahal zuen guztiak parte hartzen zuen kalejiran", dio gure berriemaileak. Villa Amparoren ondoan zegoen futbol zelaia; hortaz, haraino joaten zen kalejira.

Partiduaren ondoren, berriz, "ardo-jana" egiten ei zuten eta gure berriemaileak gogoratzen duenez, "azkeneko denak esaten eta inor ez entzuten" ibiltzen ziren. Eguna bukatzeko, erromerian dantza eta dantza ibiltzen ziren, "auzoko gurutze-gurutzean", eskola ondoan.

Beste modu bateko jaiak gogoratzen ditu gure berriemaileak. "Orduan, ilusio handiagorekin ospatzen genituen jaiak, ilusio partikularrarekin. Jaien lehenengo egunean Meza Nagusia izaten zen; ahal zuen dotoreen jantzi eta mezetara joaten zen jendea. Garai

hartan ez zegoen elizarik Musakolan, Parrokian egiten genuen meza. Cerrajerak eraiki zuen auzoko eliza". Auzoko zaindariaren pasadizorik ere gogoratzen du: "Sakristian dago San Isidro Laboraria lau auzoren artean erositakoa da (San Andres, Meatzerreka, Zaldibar eta Musakola). Eta prozesioan, lau auzo-alkateen artean eramaten zuten irudia.

Horrez gain, Modestak kontatu digu San Isidro jaien beste protagonista bat Felix soinu-jolea *Itsue* zela.

Argazkia: Modesta Gallastegi
Informazioa: M.Gallastegi
Urtea: 1936ko maiatzaren 15a



NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Esteban de Garibai etorbidea

Argazkian Esteban de Garibaiaren oroitarria azaltzen da. Azken 30 urteotan oroitarria aldatu ez bada ere, ingurua asko aldatu da. Esteban de Garibai jaio zenetik 469 urte pasatu dira, eta benetan ikusgarria izango litzateke orduko Arrasateko irudiak izatea. Askok diote Esteban de Garibaik utzitako idatzietan herriaren deskribapen zehatza egin zuela.



≈ 1970

Atzeko aldean ikusten den dorrea -orain dela urte batzuk arte Banco de Vizcaya izenekoa- urteekin ez da batere aldatu.



2002

Edozelan ere, Garibai etorbidearen ezker eta eskuin aldeetan dauden eraikinak guztiz aldatu dira, bai eta oroitarri ondoko lorategia ere.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

gorka ilepaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78

Gorka ilepaindegia

CLUB
IYOLA

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

Citroën C3

Nabarmenki berria



Azkenean ere, hemen dago.
Nabarmenki apurtzailea den autoa heldu da.
Barrualdea eta kanpoaldea, zu liluratzeko pentsatuak.
Nabarmenki berritzailea: aparkatzeko laguntza elektronikoa,
direkzio lagundu elektronikoa, aire-girogailu digitala...
Nabarmenki gaztea: irrati CD ekipoa, 6 bozgorailurekin.
Nabarmenki praktikoa: maletategi modulagarria (Moduboard)

Nabarmenki oldartsua: 110 ZPrainoko motorrak.
Nabarmenki segurua: ABS balaztatze banatzaile elektroniko-
arekin eta urgentziatzeko balaztatzeari laguntza, ESP (egon-
kortasunaren kontrol dinamikoa) eta 6 aire-zaku.
Eta pribilegiatu sentitu gura baduzu, ikus ezazu mundua
bere sabai panoramikoaren bitartez.
CITROËN C3 berria. Nabarmenki ezberdina.

 **CITROËN C3**

9.430 €-tik aurrera

www.citroen.es

Ekipamendua bertsioen arabera. Salneurria gomendatua C3 1.1i modeloerendako (BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, merkaturatze-promozioa eta gasolina autoendako Prever Plana barne). Hori guztia aplikagarria izango da operazioan parte hartzen duten salmenta lekuetan. Baliagarria hilabete amaiera arte stock-ean dauden autoetan, penintsulan eta Balear Uharteetan. Citroën Informazioa: 902 44 55 66

CITROËN - EK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK

Etor zaitez:


CHAPIME TAILERRAK SCL

Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala

Araba etorbidea z/g Tel.: 943 79 45 22. Arrasate.



CITROËN



Pauso bat aurretik

Erakusketa:

Lagarre pabilioia, z/g.

Gipuzkoa etorbidea

Tel.: 943 79 01 92

e-posta: berangoaltzaria@jet.es

ARRASATE

Berango
ALTZARIAK

